

ELKARRIZKETA | Maddi Santa Cruz Murua. myGADE graduko ikaslea eta Enpresagintza  
Fakultateko Kontseilu Errektoreko kidea

## **“Pribilegio aparta da niretzat Kontseilu Errektorearen parte izatea”**



Zenbakia  
BI ELETARA  
Nº BILINGÜE



Zenbakia  
EUSKARAZ



Ejemplar en  
CASTELLANO





**Mondragon  
Unibertsitatea**



**EMAN IZENA!**

[www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak](http://www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak)



ATE IREKIAK

**UNIBERTSITATE**

**GRADUAK**

## Unibertsitatean erabakiak hartu

Maddi Santa Cruz Enpresagintza Fakultateko Kontseilu Errektoreko kidea da, bere myGADE graduiko bigarren ikasturteetik. Ikasturte hau azkena du Graduiko ikasle bezala, eta Fakultateko erabaki organoetan parte hartzen daramatzan bi urte baino gehiagoko esperientzia ezagutu nahi izan dugu.



## AURKIBIDEA

03	Editoriala
04	Berriak
10	Erreportajea
13	Iritzia
14	Elkarrizketa
16	Unibertsitatea & enpresa
20	Komunitatea
23	Agenda

## 26. urtea

Erakundearen 25. urteurreneko ospakizunak igaro ondoren, Mondragon Unibertsitateak bere historiako 26. ikasturteari hasiera eman zion. Enpresagintza Fakultatean egindako irekiera ekitaldian hezkuntza eta enpresa arloetako hainbat eragile bildu ziren, ordezkari politiko zabalaz gain, eta bertan profesionalen prestakuntzan, ekintzailetzan, ikerketan eta transferentzian erreferente izaten jarraitzeko helburua nabarmendu zen.

## Zorionak MONDRAGON Mexico!

MONDRAGON Mexico (UMx) unibertsitateak hamargarren urteurrena ospatuko du. 10 urte hauetan etorkizuneko proiektu gisa finkatzea lortu du, eta 2.000 ikasle ingururi prestakuntza-eskaintza zabala eskaintzen die.



# PARTE-HARTZEA, AHALDUNTZEKO BIDEA

**N**orberaren egunerokoan zenbait gauza izan ohi ditugu egiteko. Ohetik jaikitzen oheratzeraino. Erabaki txiki askok osatzen dute gure eguna, eta hartzen ditugun erabaki guztiak eragina dute gure egitekoan. Hori dela eta, gure giza garapena gure esku izatea guztiok aberasgarritzat jotzen dugun heinean, gure ikasketa edo lan esparruetan eragin ahal izatea aprobetxatu beharrezko aukera bat da. Zentzu honetan, parte-hartzea errazten duten erakunde mota ezberdinen artean aurkitzen da kooperatiba, balio erantsi bat eskainiz hauen parte diren pertsonen.

arte. Horretarako, parte hartze-ko hainbat mekanismo jartzen dira kooperatibaren komunitatearen esku, formalak edo informalekoak.

Unibertsitateko ikasleei dagokienez, ikasketak egiten ari diren bitartean kooperatibako aldi baterako bazkideak dira guztiak, eta horrek ateak irekitzen dizkie hainbat espaziotan parte hartzeko. Adibidez, eremu formalenean, Kontseilu Errektorean (kooperatibako organo gorenetakoa bat erabakiak hartzeari dagokionez) edo Batzar Nagusietan parte har dezakete. Foro horietan, egunerokotasunean eragina duten erabakiak bozkatzeko dira. Horretaz gain, Ikasleen Kontseiluak ere badaude, eta horietan ikasleen iritzia edo eskaerak jasotzen dira, ondoren, ikasleen ordezkarien bidez gogoko organoetara transferitu daitezke. Bestalde, ikasgela bakoitzean ordezkari bat dago, eta ordezkari horren zeregina ikasleen ahotsa jasotzea da, bai hainbat erabaki hartzerakoan, bai ekintza-estrategia zehazterakoan.

Eremu instituzional hutsaz gain, badira beste gune informaleko batzuk ere, ikasleek beren iritzia eman ahal izateko. Horien artean daude Euskara Batzordeak, jai edo jardunaldi ludikoak antolatzen lantaldeak, berdintasun taldeak edo fakultate bakoitzean aurki daitezkeen beste hainbat adibide.

Partaidetza kooperatibek eskaintzen duten altxorra da; beraz, ikasle, aprobetxa ezazu. Informa zaitez zure esku dauden aukera ezberdinei buruz, eta izan aktibo. Ez zara damutuko!

*Unibertsitateko ikasleei dagokienez, ikasketak egiten ari diren bitartean kooperatibako aldi baterako bazkideak dira guztiak.*

Parte-hartzea kooperatiben ezaugarri nagusietako bat da, eta Mondragon Unibertsitateak, bere izaera kooperatiboari jarraiki, parte-hartzea sustatzen du kooperatiba osatzen duten pertsonen





Ordezkaritza zabala gerturatu zen ikasturte hasiera ekitaldira.

# 2023-2024 ikasturtearen hasiera ekitaldia

OÑATIKO ENPRESAGINTZA  
FAKULTATEAK JASO ZUEN HASIERA  
EKITALDI OFIZIALA. ENPRESA  
ARLOKO ETA ERAKUNDEETAKO  
ORDEZKARITZA ZABALA ELKARTU  
ZEN BERTAN, ETA VICENTE ATXA  
ERREKTOREAK UNIBERTSITATEAK  
IKASTURTERAKO DITUEN  
HELBURUAK AURKEZTU ZITUEN.

**Mondragon Unibertsitatea** | Euskadiko enpresen lehiakortasuna ahalik eta gehien handitzeko helburuarekin, ikerkuntza eta transferentzia, profesionalen prestakuntza eta ekintzailatza eraginkortasunez uztartzea izango da Mondragon Unibertsitatearen egiteko nagusia 2023-2024 ikasturtean. Helburu hauek zerrendatzeaz gain, Vicente Atxa errektoreak kooperatibismoak eta unibertsitate kooperatiboak ekar ditzakeen onura sozial eta ekonomikoak nabarmendu zituen, eta nazioartekotzean jarri zuen fokua. Unibertsitateak gero eta europarragoa izan nahi du, eta horregatik heldu dio Europako lehenengo unibertsitate-aliantza dualaren buru izateko ardurari. Aliantza horri esker, urtean Europako 50.000 ikasle baino gehiago trebatuko dira unibertsitate-prestakuntza dualen, munduan erreferente bilakatuz.

## Ordezkaritza zabala

Vicente Atxaren interbentzioaz gain, Iñigo Urkullu lehendakariak inauguratu zuen ofizialki ikasturtea. Ondoren, Sain Milena López Pérez Enpresagintza Fakultateko irakasle eta ikertzaileak hitzaldi bat eskaini zuen. Era berean, ekitaldian izan ziren Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburua, Javier Oleaga Mondragon Unibertsitateko lehendakaria, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Eider Mendoza Gipuzkoako ahaldu nagusia, Denis Itxaso Madrigo Gobernuaren ordezkaria, Izaro Elorza Oñatiko alkatea, Javier Oleaga Mondragon Unibertsitateko lehendakaria eta Iñigo Ucin, MONDRAGONeko lehendakaria, besteak beste.

## 2022-2023 ikasturteko memoria



Mondragon Unibertsitateko idazkari nagusi Idoia Peñacobak 2022-2023 ikasturteko txosten akademikoa aurkeztu zuen. Mondragon Unibertsitateak graduako 18 titulu (11 dualak), 20 master ofizial (horietatik 11 eredu dualen) eta 4 doktorego-programa eman zituela nabarmendu zuen.

2022-2023 ikasturteko matrikulazioei buruzko azterketa baten arabera, 6.712 ikasle eman zuten izena, eta graduondoko ikasleen kopurua batuz gero, 7.458 ikasle egon ziren guztira Mondragon Unibertsitatean matrikulatuta.

# myGADE-ei ongi etorria

ENPRESAGINTZA FAKULTATEKO myGADE GRADUKO IKASLEEK IKASTURTE BERRIARI HASIERA EMAN ZIOTEN. KURTZO BAKOITZEKO IKASLEEK ERRONKA EZBERDINAK HARTUKO DITUZTE.



Oñatiko campusean egin zitzaizen ongi etorria myGADE berriei.

**Enpresagintza Fakultatea** | Irailaren erdialdean, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradu (myGADE DUAL) urte akademikoari hasiera eman zitzaion, aktibitatea martxan jarri fakultateetan eta DUAL eredu lanean ari diren enpresetan.

Honen ondoren, laugarren mailako ikasleak jadanik beraien esperientzia internazionala garatzen eta beren Gradu Amaierako Proiektuekin hasiak dira; eta hirugarren mailakoek, aldiz, hasi berri dute modu praktiko eta erronkaz beterikoan lanera eramango dituen kurtsoa, enpresaren garapena sakon aztertzeko. Bestalde, bigarren mailakoek bi seihileko izango dituzte aurretik erakundearen funtsezko arlo desberdinak ulertzeko, eta lehenengo mailakoek lehenengo egunetatik ikusi eta bizi ahal izango dute Enpresagintza Fakultateko esperientzia beste edozeinekin alderatuta oso bestelakoa dela.

## Ikasle berriak campus ezberdinetan

Lehenengo mailan, hiru campusetan (Oñati, Bidasoa eta Bilbo) banatutako 194

ikasle berri sartu dira titulazioan, eta topaketarako egun hauek taldearen arteko harremanak eraikitzeko balio ahal izan dute, graduaren balio-proposamenarekin konektatu eta myGADEren zutabe bakoitzera hurbilduz.

Zentzu honetan, ikasketa prozesuari begirako lehen aktibitateak izan zituzten, eta, beste gako batzuen artean, prozesuaren protagonista egiten dituzten metodologia aktiboak probatu zituzten, gaitasun pertsonaletan sakonduz. Horrez gain, enpresekin lehen harremana izateko aukera izan zuten, Ulma Construcción, Orona, Matz-Erreka eta Zorrozaurreko enpresa berritzaile ezberdinetara egindako bisiten bitartez.

Besteak beste Garbiñe Beraza Arrese ORONA Fundazioko arduradunak gradu osoan aztertuko dituzten gaiak lotzeko gaitasunean jarri zuen fokoa, praktikotasunak duen garrantzia azpimarratuz.

Lehen egun hauek emozioz beteta bizi izan dituzte ikasleek, ikasturteak ekarriko dizkien erronkei aurre egiteko prest.

Ongi etorri eta zorten on guztioi!!

**Lehenengo mailan, hiru campusetan (Oñati, Bidasoa eta Bilbo) banatutako 194 ikasle berri sartu dira titulazioan.**

## Aniztasunari erantzuteko arreta zerbitzu berria

ZERBITZUAREN HELBURUA IKASLE ZEIN LANGILE EZ-TRADIZIONALEN GARAPENEN INTEGRALAN LAGUNTZEA DA.



Ikasle eta langile ez-tradizionalei laguntza ematea da zerbitzuaren helburua.

### Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Azken urteotan, gero eta ikasle ez-tradizional gehiago ari da hurbiltzen unibertsitateari. Ikasle horiek dituzten premiei ahalik eta erantzun egokienak eman ahal izateko, Aniztasunari Erantzuteko Arreta Zerbitzu berria jarri du abian Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak.

Zerbitzu honen hartzailak dira ezaugarri fisiko, sentsorial, adimenezko zein psikikoengatik Fakultateansarbideizateko eta aukeraberdintasunean mantentzeko zailtasunak izan ditzaketen ikasle zein langileak. Era berean, arreta eskainiko diote pertsona horiekin harremana izan behar duten langile zein ikasle guztiei.

Ikasle zein langile ez-tradizional horiei unibertsitatearekin harremana hasten duten momentutik prozesuan akonpainamendu bat egingo zaie, dituzten hezkuntza premiak zein behar psikologikoak asetzen laguntzeko.

### Erreferentziako zerbitzua

Ikasleen kasuan, Aniztasunari Erantzuteko Arreta Zerbitzuko erreferente bat izango dute beraien ibilbide akademiko osoan. Aldiro, erreferentearekin biltzeko aukera izango du ikasleak, bere garapena partekatzeko eta bere beharren asebetetze maila baloratzeko. Ikaslearen jarraipena egin ahal izateko, AEAZ zerbitzua koordinatuko da tutore eta irakasleekin.

Zerbitzuak eskainiko duen bidelagunaz gain, ikasleak ikaskide erreferente bat izateko aukera ere izango du: enbaxadoreak. Pertsona hauek boluntarioak izango dira eta zerbitzua behar duen pertsonak berak hautatuko du bidelagun izango duen enbaxadorea.

Zerbitzu berri honekin Mondragon Unibertsitateak osatu nahi ditu komunitate inklusibo garatzeko ekintzak. Aniztasunari Erantzuteko Arreta Zerbitzu berri hau borobiltzera dator 2021eko urrian, Fakultateak abian jarritako Arreta Psikologikorako Zerbitzua (APZ).



# Hidrogenoaren Teknologien Masterraren lehen promozioa

LEHEN PROMOZIOKO 57 IKASLE GRADUATU DIRA ENPRESA BATEN BENETAKO ERRONKARI ERANTZUNEZ MASTER AMAIERAKO LANA EGIN ONDOREN

**Goi Eskola Politeknikoa** | Hidrogenoaren Teknologiai buruzko Unibertsitate-arteko Masterraren lehen promozioak bere diploma jaso du programa egiten den egoitzetan (Bilbon, Bartzelonan, Tarragonan eta Zaragoza) aldi berean egin den emate-ekitaldian. Graduatuak 57 pertsonen artean, hogeita hamar bat izan ziren Bilbao As Fabrik campusean egindako ekitaldian. Master hau egin duten profesionalek ezagutza berritzaileak eta abangoardistak eskuratu dituzte hidrogenoaren eta hari lotutako teknologien arloan, eta arreta berezia jarri dute sorreran, garraioan, biltegiatzean eta transformazioan, baita energia-merkatuan ere.

Masterraren azken puntu gisa, ikasle bakoitzak Master Amaierako proiektu bat garatu du, enpresa batek planteatutako erronka bati erantzunez. Proiektu horietan landutako gaien aniztasunak agerian uzten du berrikuntza eta ikerketa beharrezkoa dela energia-sektore hori errealitate bihurtzeko. Diplomadunek garatutako proiektuen artean, aipatzekoak dira, besteak beste, kamioi baterako erregai-pila bat diseinatzea, pirolisi bidez H<sub>2</sub> sortzeko proiektu bat egitea edo e-fuel planta berri bat diseinatzea.

## Hirugarren edizioa martxan

Urriaren 20an jarri zen martxan masterraren hirugarren edizioa, berriz ere lau kokapen berdinak mantenduz: Bilbo, Bartzelona, Tarragona eta Zaragoza. Guztira 75 toki

eskaintzen dira, honela banatuta: 30 Bilbon, 15 Bartzelonan, 15 Tarragonan eta 15 Zaragozan.

Hidrogenoaren teknologietan eta horien aplikazioetan trebatzeko interesa duten profesionalei zuzenduta dago programa, eta estatuko 5 unibertsitatek bultzatu eta koordinatzen dute: Mondragon Unibertsitatea, hura gidatzen duen unibertsitatea; Euskal Herriko Unibertsitatea; Kataluniako Unibertsitate Politikoa; Rovira i Virgili Unibertsitatea eta Zaragozako Unibertsitatea. Gainera, beste 6 prestakuntza- eta ikerketa-zentrok ere parte hartzen dute masterraren garapenean, industria-, unibertsitate- eta lanbide-heziketako erreferentziatzko erakundeen lankidetzatza izanik, industrian hidrogenoaren teknologien garapen eraginkorra bizkortzeko helburuarekin.



Bilbao As Fabrikek hogeita hamar bat ikasleren graduazioa jaso zuen.

# Turismo Gastronomikoaren Mundu Mailako Foroa

TURISMO GASTRONOMIKOARI BURUZKO MUNDUKO FOROA URRIAREN 5ETIK 7RA EGIN ZEN BERRIRO DONOSTIAN, INDUSTRIAKO 300 PROFESIONAL, ADITU ETA ERAKUNDEETAKO ORDEZKARI BAINO GEHIAGO BATUZ ETA NEKAZARITZA, GASTRONOMIA ETA TURISMOAREN ARTEKO LOTURAK INDARTUZ



Reconocidos chefs se reunieron en Donostia.

**Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea** | Basque Culinary Centerrek, OMTrekin lankidetzan, Turismo Gastronomikoaren Munduko Foroaren 8. edizioa antolatu zuen, produktuaren, gastronomiaren eta turismoaren artean dauden loturretan zentratuz. Tokiko produktuak sustatzea eta babestea, turismoak garapen iraunkorrari egiten dion ekarpena, berrikuntza eta elikagaiak alferrik galtzea izan ziren leku nagusiak.

## Nazioartera irekia

50 herrialdeetako 300 ordezkari bildu ziren Tabakaleran (Donostia), "Turismo gastronomikoa: sustraietara itzultzea" lelopean. Horien artean, munduko gastronomiako eta turismoko pertsona garrantzitsuenetako asko, hala nola Paolo Di Croce, Slow Foodeko (Italia)

zuzendari nagusia; Célia Tunc, Collège Culinaire de Franceko idazkari nagusia; Fatmata Binta, BCWP 2022ko irabazlea eta Turismo Arduratsurako OMTko enbaxadore izendatu zutena Martin Berasategi eta Pedro Subijana euskal sukaldariekin batera. Hitzorduan Brasil, Kroazia, Ekuador, Espainia, Frantzia, Ghana, Italia, Koreako Errepublika, Ruanda eta Suitzako hizlariak ere parte hartu zuten.

Sukaldaritzako tradizioak zaintzearen garrantzia azpimarratuz, edizio honetan Dieta Mediterranea UNESCOren Kultur Ondare Immaterialaren zerrendan sartu zeneko hamargarren urteurrena ere ospatu zen. Gainera, Basque Culinary Centerrek antolatutako "Culinary Plaza" ekitaldi paraleloak Botswana, Oporto (Portugal), Arabia Saudita eta Zimbabwe helmuetako sukaldaritzako espezialitateak nabarmendu zituen.

# 'Haur eta gazte literatura irakur gida 2022' sarean

HAUR ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO URTEKO EUSKARAZKO ARGITALPEN GUZTIAK AZTERTZEN DITU HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAK BULTZATUTAKO PROIEKTUAK.

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

# 2022

IRAKUR GIDA



Aurtengo azalaren diseinua egin du Elene Magunazelaia Arizmendi Ikastolako ikasleak.

### Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea |

2022. urtean euskaraz argitaratutako haur eta gazteei zuzendutako 225 liburuen sailkapena biltzen dituen argitalpena sarean eskuragai dago jada: 'Haur eta gazte literatura irakur gida 2022'. 14 lagunek osatutako lantaldeak urteko argitalpen guztiak irakurri, aztertu, eta hiru ataletan multzokatu dituzte: liburu gomendagarriak, oso gomendagarriak eta zerrenda berezia, azken horiei erresina bat gehituz.

### Elkarlanaren fruitua

2022. urteko gida egiteko, haur eta gazte literaturarekin lotutako zortzi erakundeetako 14 lagunek hartu dute parte, tartean, liburuzainek, eskoletako irakasleek eta Mondragon Unibertsitateko adituek. Gidaren hitzaurrean adierazi duten moduan, "gida hau talde baten lan jarraituaren eta liburu askoren irakurketaren emaitza da. Guraso, irakasle eta bibliotekariarentzat lagungarri izan nahi du".

Gidaren sarreran, egileek eurek azaltzen dute lan egiteko modua eta liburuak sailkatzeko erabili dituzten irizpideak: "Taldearen lan teknika honetan datza: haur eta gazte literaturaz 2022. urtean euskaraz publikatu dena irakurri, gure irakurketak kontrajarri eta hizkuntzaren erabilpena, kalitate literarioa, gaiari ematen zaion tratamendua, eta abar kontutan izanda baloratzen ditugu".

### EU4DUAL

## Etorkizuneko Europako Unibertsitateen II. Foroa

EU4DUALEKO ORDEZKARITZA BAT EUROPAKO UNIBERTSITATEEK ANTOLATUTAKO FORORA JOAN DA, ETA ALIANTZA ESPAINIAREN LEHENDAKARITZAPEAN ANTOLATUTAKO LEHEN EKITALDIA DA

**Mondragon Unibertsitatea** | Frantziako Lehendakartzapean egindako Lehen Foroaren ondoren, Espainiaren Lehendakartzak lehendakartzako hiru hileko bakoitzean foro bat egiteko ohitura garatu nahi du. Horregatik, ekimenerako gai garrantzitsu bati buruzkoa topaketa honetan osoko bilkura bat antolatuz, gaizehatzagoi edo intereseko gai sektorialeki buruzko saio paraleloez gain.

### Ordezkaritza zabala

Etorkizuneko Europako Unibertsitateen II. Forora EU4DUAL ordezkari bat joan zen, honako hauek osatua: John Harris (EU4DUALEko idazkari nagusia), Jon Altuna (EU4DUALEko koordinatzailea), Vicente Atxa (Mondragon Unibertsitateko errektorea eta ekimenaren burua) eta Jon Aurrekoetxea (EU4DUALEko proiektu-zuzendaria). Gainera, foroan parte hartu zuten unibertsitateetan eskumenak dituzten ministerio-ordezkariek, beste lurralde-administrazio batzuetako ordezkariak, enpresa- eta gizarte-munduko ordezkariak, inolako aliantzatan sartuta ez dauden unibertsitateetako ordezkariak eta estatu kideetako kalitate-agentzietako ordezkariak.

## IKASLE BAT SARITUA EUROPEAN MATERIALS RESEARCH SOCIETY BILTZARREAN

INGENIARITZA BIOMEDIKOKO GRADUKO MALEN RAZKIN IKASLEAK BERE GRADU AMAIERAKO LANETIK ABIATUTA AURKEZTUTAKO LANAK POSTER ONENAREN SARIA JASO ZUEN.

**Escuela Politécnica Superior** | Malen Razkin Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza Biomedikoko Graduoko laugarren mailako ikasleak poster onenaren saria jaso zuen 2023 Spring Meeting of the European Materials Research Society biltzarrean (E-MRS). Razkinek "Making Light Matter: Lasers in Material Sciences and Photonics" Simposiumean parte hartu zuen. Bertan aurkeztutako lana Mondragon Unibertsitateko Gainazalen Teknologien Ikerketa Taldearekin eta Bundesanstalt für Materialforschung und -prüfung (BAM) erakundearekin elkarlanean garatutako Gradu Amaierako Proiektuaren emaitza da.

### Bakterien jarduna aztertuz

Razkinek aurkeztutako posterraren izenburua Bacterial



Malen Razkinek saria jaso zuen.

adhesion on fs-laser processed laser-induced periodic surface structures izan zen, eta "Outstanding Student Poster Award" saria eskuratu zuen. Posterrean aurkeztutako ikerketak topografiaren aldaketak bakterioek gainazalei itsasteko duten portaeran aztertu zen, jakina baita bakterioak edonon daudela eta gainazal mota guztiak kolonizatzen dituztela, baita gizakitik hurbilen daudenak ere, hala nola larruazala, elikagaiak eta eguneroko objektuak. Proiektuaren garapenean, Razkinek eta berarekin elkarlanean aritu direnek materialen gainazalen ezaugarriak manipulatu zituzten, haien itsaspen dinamika aldatzeko eta gailu medikoen moduko aplikazioetan bakterioen kolonizazioa kontrolatu ahal izateko. Zorionak Malen.



## MONDRAGON Mexikoko Unibertsitatearen 10. urteurrena

QUERETARON ERROTUTAKO UNIBERTSITATEAK BERE LEHEN HEMARKADA 2.000 IKASLE ETA GRADU ETA MASTER ESKAINTZA ZABALAREKIN BETE DU. CAMPUS BERRI BAT MEDIO, ETORKIZUN HANDIKO PROIEKTU BEZALA EGONKORTU DA.



Queretaron urteurren berezia ospatzeko ekitaldia egin zuten.

**Mondragon Unibertsitatea** | MONDRAGON Mexiko Unibertsitateak (UMx) bere X. urteurrena ospatzeko ekitaldia egin zuen Queretaron dituen instalazioetan. Bertan izan ziren, besteak beste, Mauricio Kuri Querétaro estatuko gobernadorea, Iñigo Ucin Korporazioko presidentea, Marijo Pagalday MONDRAGONeko Ingeniaritza eta Zerbitzuen Dibisioko presidenteordea, Zigor Ezpeleta MONDRAGONeko Gestio Sozialeko zuzendaria, Vicente Atxa Mondragon Unibertsitateko errektorea eta Arturo Alvarado UMx-eko errektorea. Ekitaldian Alvaradok hartu zuen hitza, eta esan zuenez “gaur, bizikleta hark Euskal Herrira – Arizmendiari erreferentzia eginez-ekarri zuen elkar-lankidetzaren, nazioarteko ikuspegiaren eta produktibitatearen balioa ospatzen dugu, eta balio horiek Queretarora (Mexiko) iritsi izana.

### Urratsak sendo emanez

UMx gaur egun etorkizun handiko errealitatea da, besteak beste bere campus berrituari esker (13.000 m<sup>2</sup> baino gehiago eraiki dira 50.000 m<sup>2</sup>-ko lursail batean). Gaur egun 2.000 ditu, horietako %75 gradutan banatua (%33 ingeniartzak). Guztira 22 graduko programa eskaintzen da bertan, helduentzako 11 gradu, 12 unibertsitate-master eta doktorego 1. gaur egungo kopuruak oso positiboak diren arren, hazkundeak bere horretan jarraitzea espero da, aurreikuspenen arabera, 2028an 3.000 ikasle baino gehiago izango baitira bertan. Eginga dako lana aitortuz, etorkizunera begira arrakasta opa diogu MONDRAGON Mexikori. Zorionak eta hamarkada askotarako!



El aspecto que tendrá la GOe se ha presentado al público.

## Etorkizunera begiratzen duen gastronomia

BASQUE CULINARY CENTERREK GOE-REN XEHETASUNAK AURKEZTU DITU, GASTRONOMIAREN ETA LURRALDEAREN ETORKIZUNERAKO PROIEKTU ESTRATEGIKO JASANGARRIA.

**Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea** | Gastronomiaren eta elikaduraren etorkizuneko erronka handiei erantzun eta eskalatuko duen ekosistema irekia osatuko du GOe (Gastronomy Open Ecosystem), zientzia eta ezagutza oinarri duena.

Basque Culinary Centerren proiektu estrategikoetako bat da, eta Donostiako Gros auzoan eraikiko da, 3.800 m<sup>2</sup>-ko lursaillean. Proiektua hasi zenetik, ingurunearen baldintzak kontuan izan dira eta eraikinaren iraunkortasuna eta aztarna berdearekiko errespetua funtsezko elementua izan dira eraikina eraikitzeke ideien lehiaketan. BIG arkitektura-estudioak irabazi eta Bjarke Ingels arkitektoak gidatuko duen proiektua jasangarritasunaren eta lurrarekiko atxikimenduaren adibide garbia da, eta egungo erabilera sozial eta aisialdiko erabilera guztiak mantentzen ditu. Horrez gain eta eraikin berriaren aztarna berdea egungoaren ia berdina izatea bermatzen du.

### Espazio berriak sortu

Asier Alea Basque Culinary Centerreko garapen globaleko zuzendariak proiektuaren aurkezpenean

nabarmendu zuenez, GOeren jatorrian berrikuntza bultzatu eta sustatzeko gune espezializatu berriak sortzeko beharra dago. Hainbat eragile elkartzea sustatuko duten espazioak, ikerketa eta berrikuntza aurreratua modu kolaboratiboan garatzeko. Ekintzaileak, ikertzaileak, enpresak, ikasleak eta herritarrak izango dira GOeko “biztanleak”, eta elkarbizitza horretatik aterako dira etorkizuneko gastronomiari erantzuneko dioten teknologiak. Esparru horretan ez dago berrikuntza-zentrorik zentzumenean eta ikerketaren ikuspegitik.

Bestalde, BCC Innovationeko zuzendari Begoña Rodríguezek “Berrikuntza irekia” eta “Herritarren zientzia” kontzeptuak nabarmendu zituen, eta gaineratu zuen eraikinetik hurbil egoteak parte-hartze aktiboagoa eta naturalagoa emango diela pertsonen proiektu horietan. Proiektu horien onuradun nagusiak parte-hartzaileak dira, eta osasunaren, iraunkortasunaren, digitalizazioaren, sensorialaren eta produktu berrien arloetan garatuko diren proiektuak dira.



# Enpresagintza Fakultateko unibertsitate master berrituak

IRAILA ETA URRIA BITARTEAN HASI ZIREN ENPRESAGINTZA FAKULTATEKO UNIBERTSITATE MASTERRAK, GUZTIRA 136 IKASLEREKIN



Enpresa masterretako ikasleek berrikuntzak dituzte.

**Facultad de Empresariales** | Fakultateko ikasleek etorkizunean lan-mundura bideratuko dituzten beraien espezializazio-masterrak hasi dituzte, ikasitakoa ingurune errealean praktikan jarritz. Marketin Digitaleko Unibertsitate Masterraren XII. edizioa bi talderekin hasi da, bata Bilbon eta bestea Donostian, benetako marketin-estrategiak egitea

ahalbidetuko dioten beharrezko gaitasunak garatzeko helburuarekin. Bestalde, Oñatin Kontabilitate eta Finantza Zuzendaritzako Unibertsitate Masterrari hasiera eman zaio. Master horri esker, zuzendaritza eta erantzukizun postuetan lan egin daiteke, enpresetako kontabilitatea eta finantza bideragarritasuna kudeatuz.

Halaber, Bilbon hasi dira Erakundeak Nazioartekotzeko Unibertsitate Masterraren IX. edizioa, Pertsonen Talentuaren Kudeaketa Estrategikoko Unibertsitate Masterraren VII. edizioa eta II. Negozio Adimenerako Datuen Analisiko Unibertsitate Masterra (Business Analytics) argitaratzea.

Erakundeak Nazioartekotzeko Unibertsitate Masterreko ikasleek munduan zehar hedatzen eta nazioarteko merkatu berriak irekitzen laguntzen diete enpresei; Datuak Aztertzeako Masterrean, berriz, datuen analitika aurreratuan espezializatzen dira, negozio-esparru desberdinei erantzunak emateko.

## Berritasun nagusiak

Pertsonen Talentuaren Kudeaketa Estrategikoko unibertsitate masterra Bartzelonara hedatu da, Fakultateak Bilbon eta Bartzelonan duen presentzia egonkortuz. Master honetan, ikasleak eboluzionatzen ari diren azken joeretan trebatzen ari dira, eta pertsonen kudeaketaren eta garapenaren eremua erabat aldatzen ari dira. Gainera, lehen egunetik, enpresa erronka errealean oinarritutako ikaskuntza metodologiaren bidez, pertsonen talentua kudeatzeko proiektu estrategikoak diseinatzeko, ezartzeko eta kudeatzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatzen dituzte, erakundeen lehiakortasunean zuzenean eragiten dutenak.

## ‘Ertzeko bizitzak eraldatzeko ekintza kooperatiboa’ saioak, KoopFabrikaren eskutik

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** Abian dira *KoopFabrika Zabaltzen* izeneko saioak Gipuzkoako toki ezberdinetan. Jardunaldi horiek ekonomia sozial eraldatzailearen eta ekintzailetza sozialaren inguruko hainbat gai jorratzeko topaguneak dira. Izan ere, saioen helburua horixe da, gai ezberdinak jorratuz, ekintzailetza soziala eta, beraz, KoopFabrikara gizarteratzea.

Antolatutako saioen artean, urriaren 6an eta 7an, Hernaniko Iturrolan jardunaldia antolatu zuten. Bilkuraren helburua izan zen kooperatiba eta kooperatibismoa tresna gisa gizarte ekonomia eraldatzaile eta feminista sustatzea eta garatzea, eta ezagutaraztea komunitateari eta emakume eta pertsona migratuei

gizarte-ekintzailetza kooperatiboko esperientziak. Jardunaldian etxeko lanetan eta zaintzaren eremuan eta pertsona migratuen, eta bertakoen eta migratuen arteko aliantzen sustapena jorratu ziren bereziki.

### Elkarlanaren emaitza

Jardunaldiak KoopFabrika proiektuan parte hartzen duten hiru erakundeek antolatu zituzten, hala nola Olatukoop-ek, Mondragon Unibertsitateko LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak eta GEZKIK, EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuak. Programak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruko Departamentuko diru laguntza jasotzen du.



Hernanin egindako ekitaldiaren une bat.

## PARTE-HARTZEA

# Parte hartzen duen ikaslego inplikaturua

PARTE-HARTZEA KOOPERATIBEN EZAUGARRI NAGUSIETAKO BAT DA, ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, BERE IZAERA KOOPERATIBOARI LEIAL IZANIK, PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEN DU. HORRETARAKO, PARTE HARTZEKO HAINBAT MEKANISMO JARTZEN DIRA KOOPERATIBAKO KOMUNITATEAREN ESKURA, BAI MEKANISMO FORMALAK, BAI INFORMALAGOAK.

Unibertsitateko ikasleei dagokienez, ikasketak egiten dituzten bitartean, denak kooperatibako aldi baterako bazkideak dira, eta horrek atea irekitzen dizkie hainbat gunetan parte hartzeko. Esate baterako, esparru formalenean, Kontseilu Errektorean (kooperatibako organo gorenetakoa bat erabakiak hartzeari dagokionez) edo Batzar Nagusietan parte har dezakete. Foro horietan, eguneroko lanean eragina duten erabakiak hartzen dira. Horretaz gain, Ikasleen Kontseiluak ere badaude, eta horietan ikasleen iritziak edo eskaerak jasotzen dira, gero horiek goragoko organoetara transferi dakizkien beren ordezkarien bidez. Bestalde, ikasgela bakoitzean ordezkari bat dago, eta haren lana taldearen ahotza biltzea da, bai erabakiak hartzeko orduan, bai ekintza-estrategiak zehazteko orduan.

Eremu instituzional hutsaz gain, badira beste eremu informalago batzuk ere, ikasleek iritzia eman dezaten. Horien artean daude Euskara Batzordeak, jaiak edo jolas-jardunaldiak antolatzekeo lantaldeak, berdintasun-taldeak edo fakultate bakoitzean aurki daitezkeen beste hainbat adibide. Ildo horretatik, unibertsitateko Kirol Zerbitzuak ikasleen interesen arabera jarduerak ere antolatzen ditu. Urtero antolatzen diren jardueren aniztasuna eskola batzuetako kirol ordezkariak helarazten dizkieten proposamen edo ideia berriekin osatzen da. Azkenik, Biteri Ikastetxe Nagusiko egoiliarren artean sortzen diren dinamikak ere azpimarratu behar dira, beren interesetara erantzuten dieten jarduerak antolatzekeo lantaldeak sortzen baitituzte

## Ikasleen ordezkari-tza instituzionala



**Natale Oria**  
Industria Antolakuntzako Ingeniaritzako graduko bigarren mailako ikaslea da eta Goi Eskola Politeknikoko Ikasle Kontseiluko idazkaria..

Natale Oria Industria Antolakuntza Ingeniaritza graduko bigarren mailako ikaslea da, eta Goi Eskola Politeknikoko Ikasle Kontseiluan parte hartzen du. Unibertsitateira iristerakoan, bere lehen urtean klaseko delegatuorde izendatua izan zen, eta urte honetan zehar bilera ezberdinetan parte hartu eta kudeaketa kontu ezberdinen ardura eramatea tokatu zitzaion. . Lehen ikasturte honetan zehar ordezkari-tza lanak bete zituen batez ere Natalek, besteak beste Ikasle



**Natalek, gaur egun, Goi Eskola Politeknikoko 2.500 ikasle inguru ordezkari-tza diti, eta hainbat funtzio diti ikasturte honetarako; besteak beste, gainerako ordezkarietara harremanetan jartzea edo unibertsitateko bizitza aktiboa sustatzea.**

Kontseiluetan komentatzen zena bere klasekideei transmitituz edo klasekideen eskakizunak irakasleei luzatuz (azterketa daten aldaketa adibidez). 2023-2024 ikasturte honetarako bere klaseko delegatu bilakatu da, eta horrez gain, Ikasle Kontseiluan pertsona bat ordezkari-tza tokatu denean zuzenean Fakultateko zuzenean jaso du bertan integratzeko eskaera, “eta niretzat ohore bat izan zen honetarako niregan pentsatzea”. Gauzak horrela, Goi Eskola Politeknikoko 2.500 ikasle ingururen ordezkaria da gaur egun Natale, eta egiteko ezberdinak diti ikasturte honetarako, besteak beste gainontzeko ordezkarietara kontaktua ezarri edo unibertsitateko bizitza aktiboa sustatzea. Azken hau erronka propiotzat hartzen du, Fakultateko ordezkarietara esan diotenaren arabera aurretiaz hutz egin duen zerbait izan baita. Honi erantzunez, Natalek aipatzen du ikasturte honi begira besteak beste “ikastaro ezberdinak antolatzea gustatuko litzaidake, lehen sorospenak edo informatikarekin zerikusia duten ikastaroak besteak beste”.

Ikasle Kontseiluan parte hartzerakoan ezagutzaren transmisioak ere duen garrantzia azpimarratzen du Natalek, izan ere bere aurretik ikasleen ordezkari-tzan kargua aurretiaz izan duen pertsonarekin duen kontaktuak duen balioa nabarmendu du; “Berak azaldu dit adibidez orlaren kudeaketa aurrera eramane behar dudala laugarren mailakoekin, edo besteak beste Euskara-ren Eguna edo San Pankrazio bezalako jaiak antolatzen lagundu”.

Gaur egun, Goi Eskola Politeknikoko Ikasle Kontseiluarako klase bakoitzeko 150 delegatu eta delegatuorde konbokatzen dira, ta Natalek dionez normalean kurtso hasieran jendea gogotsu agertzen den arren, kurtsoak aurrera egin ahala 20 eta 30 pertsona inguru elkartu izaten direla astero egiten dituzten bileretan. Etor-kizunera begira, Ikasle Kontseiluaren biziraupena bermatzeko delegatu eta delegatuordeen konpromisoa berrestea beharrezkoa dela azpimarratzen du Natalek, eta hau bermatzeko neurriak hartzea egokitzen jotzen du. Azken finean, ikasleek beraien esku duten



Natale Oriak  
erakusketa bat egin du  
Ikasle Kontseiluan



organo nagusiaren erabilera egokiak ikasleek Fakultatearen egunerokoan duten partaidetza kuota indartu, eta ondorioz beraien interesen araberako ongizatea ahalbidetuko baitu.

“Ikastaro honi begira, besteak beste, hainbat ikastaro antolatzea gustatuko litzaidake, hala nola lehen laguntzak edo informatikarekin lotutako ikastaroak”..

### Partaidetzarako antolaketa kolektiboa



**Eneritz Osinaga**  
Euskara Batzordean parte hartu zuen, baita Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Neska Taldean ere.

Eneritz Osinaga Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Euskara Batzordean eta Neska Taldean dagoen ikasle bat da. Talde hauekiko atxikimendua bere unibertsitateko lehen urte amaieran eta bigarrenaren hasieran eman zela aipatzen du, bere arlo pertsonalean dituen borroka larroekin bat egiten duten heinean. Urtebete baino gehiago ibilbidea bete du dagoeneko Neska Taldean, eta Euskara Batzordean hilabete gutxi batzuk daramatza. Eneritzek aipatzen duenez, “militantzia gogorra den zerbait da”, eta ondorioz honek bere egunerokoan eragina du, besteak beste bere agenda betetz. Dena den, bi talde konkretu hauen jarduna piztu eta aurrera egiteko motibaturik agertzen du bere burua, eta taldeak horretarako eskaintzen dion babesa nabarmentzen du, “nahiz eta gustatuko

“Hainbat proiektu eta eragin-taldetan parte hartzeak gauza asko ikastea eta ez ikastea eragiten du, batez ere kolektiboan sortzen diren harremanei esker”.

lizaigukena baino taldekide guxtiago egon bertan". Hala ere, oztopoak oztopo izanik Eneritzek militantziak eskaintzen duen aberastasunean jartzen du fokoa, izan ere "proiektu eta talde eragile ezberdinetan parte hartzearen ondorioz hainbat gauza ikasi eta desikasten direlako, batez ere kolektiboan sortzen diren harreman ezberdinei esker". Era berean, Eneritzek aitortzen du ikasle berriak talde eragileetara erakartzea ez zaiela errazazurratzen, unibertsitatean ikasleek nahiko dutelako beraien egunerokolanak aurrera eramaten. Bere ustez, talde eragileen papera azpimarratzea garrantzitsua da, etorkizunerako funtsezkoak diren oinarriak ikasten baitira bertan, "eta gainera gune erosoak dira, adin eta mota ezberdinetako jendearekin osatutakoak, gune oso indartsuak".

#### Bidasoako ikasleak mugimenduan



### MUGiHadi

**Mondragon Unibertsitateko Bidasoako campuseko Enpresagintza Fakultateko ikasleek osatutako elkartera.**

MUGiHadi Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateko, eta konkretuki,

Bidasoako kanpuseko ikasle talde batek osatzen duen elkarte bat da, ikasleen arteko harremanak sustatzeko helburuarekin fakultatean eta bertatik kanpo ekintza ezberdinak antolatzen dituena. Ikasturte ezberdinetako ikasleek osatzen dute MUGiHadi, eta taldeko edonork du ekintzak proposatzeko aukera, gero guztien artean erabakiz hauekin aurrera egingo den edo ez. Eztabaida hauek Bidasoako kanpusean dagoen MUGiHadi izeneko ikasgela batean lantzen dira, eta bertatik dator taldearen izena.

Talde eragile baten parte izateak

ikasleek egunerokoan duen eraginari buruz hitz egiterakoan, bertako partaideek aipatzen dute beraien egunerokoa beste edozein ikaslerena bezalako dela, "baina egia da ekintzak martxan jartzen ari garen momentuetan, hauen antolaketak dakarren lan kargak momento estresanteak izatera



**MUGiHadin hainbat jarduera antolatzen dituzte Fakultatearen barruan eta kanpoan, ikasleek arteko harremanak sustatzeko.**

ere eramaten gaituela". Kontuan izan behar da bertako partaideek ikasketak Dual ibilbideko enpresa jarduna eta MUGiHadin parte hartzea uztartu beharrean egoten direla, eta horregatik garrantzitsutzat jotzen dute irakasleengandik jasotzen duten babesa. Hala ere, MUGiHadi partaideek nabarmentzen dutenez, "oso aberasgarria da horrelako dinamiketan murgiltzea, besteak beste jende ezberdina ezagutzeko aukera ematen duelako eta, gainera, etorkizun profesionalen baliagarria izan daitezkeen konpetentziak jaso proiektuen kudeaketan adibidez". MUGiHadien ibilbideari errebasoa eginez, LoreFesta ekimenean emandako aurrerapausoak nabarmendu behar dira, besteak beste kanpus eta ikasturte ezberdinetako ikasleak nahastea lortu baita, harreman pertsonal eta profesionalak sakonduz.



**Oso aberasgarria da horrelako dinamiketan murgiltzea, besteak beste, jende ezberdina ezagutzeko aukera ematen duelako eta, gainera, etorkizun profesionalen baliagarria izan daitezkeen proiektuen kudeaketa bezalako gaitasunak eskuratzeko aukera ematen duelako".**

EN

## Involved, participative students

Participation is one of the main characteristics of cooperatives, and Mondragon Unibertsitatea, true to its cooperative essence, promotes participation among the people who are part of it. To this end, there are different ways to participate in the cooperative community, both through formal or more informal mechanisms.

While university students are studying, they are all temporary members of the cooperative, which opens its doors to participation in different spaces. For example, in the most formal field they can participate in the Governing Council (one of the highest decision-making bodies of the cooperative) or in the General Assemblies, forums voting on decisions that influence their day-to-day life. In addition, there are Student Councils, which collect opinions or requests from students, to then be transferred to higher bodies through their representatives. Moreover, in each class there is a delegate whose job is to present their group's voice, both when making various decisions and when defining different action strategies.

In addition to the more purely institutional sphere, there are also other more informal spaces in which students can give their opinion. Among them are the Basque Commissions, the working groups to organize the different festivities or recreational days, the equality groups and many more that can be found in each faculty. Along these lines, the university's Athletic Department also organizes activities for the student body. The wide variety of activities that are organized annually is complemented by new proposals or ideas sent to them by the athletic class representatives. Finally, it is also worth highlighting the dynamics that arise between the residents of Colegio Mayor Biteri, as they create working groups to organize activities that respond to their interests.

#### Institutional student representation

The institutional representation of students is essential, according to Natale Oria, who participates in the Polytechnic School Student Council and performs important tasks that transmit the opinions and requests of students to the academic authorities. Currently, 150 delegates and class sub-delegates are summoned to the Student Council of the Polytechnic School, and according to Natale, although people are usually enthusiastic at the beginning of the year, as it progresses the number of students attending the monthly meetings wanes. Looking ahead, Natale insists on efforts to encourage active student participation in extracurricular activities.

#### Collective organization for participation

Collective organization is important for student participation, which is seen in groups such as the Euskera Commission and the Neska Taldea, where the student, Eneritz Osinaga, participates. Eneritz says that despite the challenges they face in attracting new members, participation in these groups provides opportunities for learning and developing fundamental skills for the future.

#### Bidasoa students in action

Another example is the MUGiHadi association, made up of Business students in the Bidasoa campus. It organizes activities, in and out of the faculty, to foster relationships between students, while contributing to the personal and professional enrichment of its participants, always with the support of the teaching staff. An example of this is the LoreFesta initiative, which unites students from different campuses and years to deepen personal and professional relations.



# KOOPERATIBA GARA

**Ainara Udaondo** LANKE Kooperatibismoaren Ikertegiko zuzendaria



**P**artehartzeaz dihardugun zenbaki honetan, gure unibertsitatearen kooperatiba izaeran begirada jartzea dagokigu. Izan ere, Mondragon Unibertsitatea, beste gauza askoren gainetik, unibertsitateko kooperatiboak dela aldarrikatu nahiko nuke gaurko honetan. Kooperatiba izate horrek definitzen eta egiten gaitu.

Zer esan nahi du kooperatiba izateak? Hurbilpen askotarikoak egin dakizkioke eredu kooperatiboari, baina kooperatibaren definizioa esaldi bakarrean destilatu beharko bagenu ondokoa esango nuke: partaideen erabaki ahalmenean oinarritzen diren erakundeak direla kooperatibak. Hau da, erakundeak osatzen duten pertsona eta eragileek hartzen dituzte erabakiak kooperatibetan, eta beraz, logika demokratikoen arabera antolatzen eta gobernatzeko diren erakundeak dira kooperatibak.

Ezaugarri oso esanguratsua iruditzen zait hori demokraziaren paradigman sinistendugunontzat. Enpresa eremua logika demokratikoen arabera antolatzea ez da ohikoa, are gutxiago enpresaren jabetza demokratizatzea. Ekarpenean interesgarria egiten dugu euskal kooperatibok norabide horretan. Eta gainera, izateko eta egiteko modu hori ez da eremu bakar batera mugatzen. Euskal mugimendu kooperatibo oso aberatsa da bere adierazpenean eta praktikan. Milaka eta milaka kooperatiba ditugu gurean, eta askotariko sektoretan gainera. Kooperatiba eredu egikaritu dugu industrian, kontsumoan, hezkuntzan, energian, finantzetan, nekazaritzan... Zerrenda luzea osa genezake. Mundu mailatik egiten zaigun begiradan arreta eta azpimarra jartzen dute, hain justu ere, euskal kooperatibismoaren aniztasunean. Hemen jakin izan dugu gizarteko behar ezberdinei formula kooperatiboaren bidez erantzuten; hau da, burujabetzaren eta demokraziaren praktika

zabalduz gizarteko sektore nuklearretan.

Eta aniztasun horretan kokatzen gara gu, unibertsitate moduan, hezkuntza sektorean kooperatiba eredu gorpuztuz. Osotasun eta aniztasun horren parte garena jabetzea eta paradigma kooperatiboan dugun tokiaz kontzientzia hartzea garrantzitsua iruditzen zait.

Hortaz, esan dugu errealitate kooperatibo aberatsa daukala Euskal Herriak, baina zergatik da hori? Zein da guzti horren jatorrian edo oinarrian dagoen motibazioa? Gizarteko beharri pertsonen protagonismoa erantzuteko nahia; hau

*Erakundeak osatzen duten pertsona eta eragileek hartzen dituzte erabakiak kooperatibetan, eta beraz, logika demokratikoen arabera antolatzen eta gobernatzeko diren erakundeak dira kooperatibak.*

da, burujabetzaren eta logika demokratikoen arabera antolatzen diren erakundeak sortuz gizarte hobea eraikitze bide. Bere burua antolatzeko gaiten gizarte baten ametsa dago oinarrian. Eta demokraziaren ideari elkartasuna gehituko nioke, elkarrekin lankidetzan arituz eta saretz egin baitugu bidea. Hori da gizarte eraikitze eta eraldatzeko gure kooperatibismoak egiten duen proposamena, eta egunetik egunera, zailtasunak zailtasun, praktika errealean egikaritzen diharduguna.

Amets horretan eragiteko aukera eta

erantzukizuna daukagu gure unibertsitateetik. Batetik, kooperatiba garen neurrian estrukturaliki barneratuta daukagulako paradigma hori. Eta gure zailtasun guztiekin, gauzatzen dihardugulako egunero gure gobernantza modu eta bideetan. Hezkuntza kooperatiba gara eta hezkuntzaren alorra formula kooperatiboaren arabera antolatzen dihardugu. Gure gizarteak dituen hezkuntza beharrei modu kooperatiboan erantzuteko bideak esperimentatzen dihardugu. Eta horrek badu balio bat.

Bainahorrez gain, badugu bigarrenerantzukizun bat. Izan ere, gure jardueraren izaeratik, gure ikasleengan sortzen dugun eraginaren bidez gizarte eraikitzen dihardugu. Pertsona protagonistak sortze horretan badugu zer esan handia (beste kooperatiba batzuek baino askoz gehiago). Gure hezkuntza proiektua norabide horretan garatzea ezinbestekoa da. Gure ikasketa prozesuak izaera kooperatibo horrekin koherentzia txirikordatu eta ezaugarri horietan sakontzera bideratu behar ditugu. Ikasle protagonistak eta kooperatiboak nahi ditugu. Horrela zehaztu dugu Mendeberrin 2025 egitasmoan. Aukera dugu gure izaera kooperatibo estrukturala eta ikaskuntza modu koherentzia artikulatzeko. Horrek indarra ematen diogure proposamenari: unibertsitateko kooperatibo izaeraz eta eginez.

Arizmendiarrietak pertsona protagonistak amestu zituen bere burua antolatzen duen gizarte batean. Izan gaitzen kontziente amets horren parte garena. Gure gizartearen beharrei erantzuteko logika demokratikoen arabera gobernatzeko den unibertsitate batean dihardugula. Ez dakusualitatea. Kooperatiba gara. Eman diezaiozun horri daukan balioa.



## “Pribilegio aparta da niretzat Kontseilu Errektorearen parte izatea”

### **Maddi Santa Cruz Murua** **myGADE graduko ikaslea eta Enpresagintza Fakultateko Kontseilu Errektoreko kidea**

MONDRAGON UNIBERTSITATEA OSATZEN DUTEN FAKULTATE BAKOITZA KOOPERATIBA PROPIO BAT DEN HEINEAN, KONTSEILU ERREKTOREA DA HAUETAKO BAKOITZEANERABAKI ORGANONAGUSIA. FAKULTATEKO LANGILEEK, ENPRESA KOLABORATZAILEEK ETA IKASLEEK OSATZEN DUTE.

Maddi Santa Cruz Muruarentzat 2023-2024 ikasturtea hirugarrena izango da Kontseilu Errektorean kide bezala. Unibertsitateko bigarren ikasturtean bilakatu zen bertako kide myGADE graduko ikasle hau. Bere esperientzia gertutik jaso nahi izan dugu.

**Nola bilakatu zinen Enpresagintza Fakultateko Kontseilu Errektorearen kide?** NiremyGADE graduaren bigarren ikasturtean nengoela irakasle batek aipatu zidan ikasleen ordezkari bat





“  
Fakultateko egunerokoan hartzen diren erabaki garrantzitsuenen gainean bozkatzen dugu Kontseilu Errektorean, eta nire bozkek beste edozeinenak bezain beste balio du”.

falta zela Kontseilu Errektorean. Esan zidan nire profila lan horiek betetzeko egoki ikusten zuela eta ondo iruditzen bazitzaidan nire izena proposatuko zuela hautaketan. Hasiere batean zantzak izan nituen arren baiezkoa eman nuen eta segituan sartu nintzen ikasleen ordezkari bezala. Gaur egun lau ikaslek osatzen dugu Fakultateko Kontseilu Errektorea, eta kontseilu osoko heren bat ordezkatzeko dugu, gainontzeko heren bana enpresa kolaboratzaileei eta Fakultateko langile bazkideei dagokien bitartean. Ez dakit zehatz zein izan zen ni aukeratzeko arrazoia. Ez nintzen klaseko ordezkaria, eta agian ardurak hauek ez zituen norbait egokiago ikus-

ten zen kargu hau hartzeko, inori gainkargarik ez eransteko edo.

**Zenbat denbora daramazu Kontseilu Errektorean ordezkari gisa?** Gradua-ren bigarren urtean sartu nintzen, eta laugarren mailan nago orain. Guztira hiru ikasturte oso egingo ditut.

**Zein motatako erabakiak hartzen dira Kontseilu Errektorean?** Zenbait gauza lantzen dira Kontseilu Errektorean. Besteak beste, Zuzendaritza Batzordean hartzen diren erabakien deskargua egiten da, eta Kontseilu Errektoreari dagokio bertan hartutako erabakien inguruko bozketa bat egitea. Adibidez proiektu ezberdinei begira taldeak osatzea edo talentua kudeatzeko talde baten sorkuntza bozkatzea tokatu izan zaigu.

Horrez gain, kooperatibaren kudeaketa plana aurkezten da, ikasturtearen gestio plana, kontrol ekonomikoaren itxiera eta aurreikuspenak edo aurrekontu orokorra.

**Hartutako erabaki ezberdin hauetatik izango duzu berezia egin zaizun baten bat.** Hala da. Iaz ULMA Taldeak MONDRAGON Korporazioa uztearen erabakia hartu zuen, eta une horretan ULMA Taldeko ordezkaria zen Enpresagintza Fakultateko kooperatibaren presidentea. Gertakizun hau medio, presidente berri bat jartzearen alde bozkatu behar

izan genuen, eta hori izan da niretzat orain arte egin dudan bozketarik garrantzitsuenena. Azkenean presidente aldaketa eman zen, eta gaur egun LKS-Next-eko ordezkaria da kooperatibako presidentea.

**Zer suposatzen du zuretzat ikasleen ordezkaria izatea kooperatibako organo gorenean?** Oso esperientzia aberasgarria da. 21 urterekin kooperatiba batek nola funtzionatzen duen gertutik ikusteko aukera daukat, eta bertan ematen den informazioa jasotzeko aukera izatea pribilegio itzela da niretzat, nahiz eta kontziente naizen aldi berean ardura bat ere badela. Bazkide erabiltzaile naizen heinean kooperatibaren parte naizela barneratu dut, eta erabaki garrantzitsuak hartzerakoan nire botoak beste edozein ordezkariena adina balio du, izan bazkide langile edo enpresa kolaboratzaile. Derrigorrezkoa da boto eskubide hau arduraz erabiltzea.

**Zure esperientziatik abiatuz, uste duzu ikasle guztiak parte hartu behariko zutela erabaki edo partaidetza organo ezberdinetan?** Nire ustez oso zaila da ikasle guztiak modu berean parte hartzea, baina lortu beharko genuke guztien ahotsa ordezkaturik egotea. Horretarako badaude organo ezberdinak, esaterako urtean hiruzpatalau aldiz elkartzen den ikasleen kontseilu soziala. Bertan Kontseilu Errektorean azalduetakoa komentatzen da, eta ikasleek horren gainean ditugun zalantzak edo kezak eztabaidatzen dira. Zerbait Kontseilu Errektore bideratzeko adina garrantzizkoa dela ikusten bada, hurrengo kontseilu Errektorean horretarako gaituta dagoen espazioan ateratzen dugu. Kontseilu Errektore bakoitzeko eguneko gai ordenean ikasleen proposamenak komentatzeko puntu bat egoten da. Oro har, ikasleak Enpresagintza Fakultatean ondo ordezkaturik daudela esan dezakegu.

**Hau da zure azken urtea graduiko ikasle bezala. Zure bizipenenetik abiatuz, etorkizunera begira erabaki ezberdinetan parte hartu izanak zure ikasketa prozesuan ekarpenak egin dituela esango zenuke?** Bai, zalantzarik gabe. Ikasle bezala izan dudana esperientzia ikusita etorkizunean erabaki organoetan parte hartzeko aukera izanez gero, adibidez kooperatiba



“  
Ikasleok organo ezberdinetan parte hartzeak bermatzen du ikasle ahotsa ordezkaturik egotea Fakultatean”.

batera lanera noalako dudarik gabe aurrera egingo nuke. Enpresaren egunerokoaren gaineko informazio pilo bat eskuratu daiteke, egunerokoa oso gertutik ikusi, eta asko ikasten da horretaz. Nik asko eskertzen dut bertan parte hartu izana. Egia da hasiera baten nolabaiteko bertigoa sentitzea posible dela, agian ardura oso handia duzulako zure bizkarraren gainean, baina gero ikusten duzu bueltan jasotzen duzuna askoz handiagoa dela. Askotan urrun sentitzen ditugu espazio hauek, eta agian ez banuen hau gertutik bizi izango ez nuen hain garbi pentsatuko etorkizunerako nire posizionamendu hau, baina izandako bizipenaren ondoren ez dut zalantzarik. Hori dela eta, uste dut aukera duen ikasle orok aprobetxatu beharko lukeela horrelako organo baten parte izateko aukera.

# Profesionalentzako doako ikastaroak

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK AKTIBOAN DAUDEN LANGILEENTZAT ZUZENDUTAKO IKASTAROAK ESKAINIKO DITU 23/24 IKASTURTE OSOAN ZE HAR, EZAGUTZAK EGUNERATZEKO AUKERA EMANEZ.



Goi Eskola Politeknikoak eta Lanbidek elkarlan hitzarmen bat dute.

**Goi Eskola Politeknikoak** | Goi Eskola Politeknikoak Lanbiderekin duen kolaborazio hitzarmenaren harira, 23/24 ikasturtean hainbat ikastaro eskainiko ditu doan aktiboan dauden profesionali zuzenduta. Ikastaro hauek profil ezberdinetara egokituak daude, baina nagusiki teknikariei eta bulegoetakolangileei zuzenduak. Goi Eskola Politeknikoak urtero profesionali zuzendutako 200 programa inguru martxan jartzen ditu, eta esperientzia hau baliatu du ikastaro ezberdin hauek martxan jartzeko. Azken urteetan ikasturte bakoitzeko 2.000 profesional baino gehiagok egiten dituzte ikastaroak Goi Eskola Politeknikoan, eta hitzarmen honen ondorioz kopuru hau egonkorzea posible izango da.

## Aukera zabala

Ikasturte osoan zehar arlo ezberdinetako profesionalak izango dute ikastaro hauetan parte hartzeko aukera. Azaroko ikastaroak oinarrizko elektrizitatea (20 orduko ikastaroa) eta *wordpress* plataforma erabiltzen ikastekoak izango dira (35 ordu). Lehenengoa etxean edo alderdi pertsonalean elektrizitatearen alorrean

**Lanbiderekin batera eskainitako kurtsoek profil ezberdinetarako eskaintza zabala jasotzen dute.**

egin beharreko hobekuntzetarako oinarrizko ezagutzak garatzera dago bideratua, eta bigarren aldiz lanerako zein proiektu pertsonal baterako webgune bat *wordpress* plataformaren bitartez nola sortu azalduko du.

Urtarrilean, aldiz, *metrologia* (15 ordu) eta *produktibitatea hobetzeko tresnen ikastaroa* (20 ordu) eskainiko dira. Bi hauek arlo profesionalera bideratuta egongo dira, lehenengoa tolerantzien doikuntzara eta bigarrena edozein profiletako ikasle zein langileri zuzendua dago, produktibitatea areagotzeko tresnetan sakonduz eginkizunak kudeatu eta planifikatzeko teknika desberdinak ikasiz.

2024ko martxotik aurrera ere beste zenbat ikastaro labur jarriko dira martxan, kasu honetan *ikusmen artifiziala*, *fresaketa*, *ABB roboten* programazioa edo *hidraulikaren* inguruan izango dira. Hauek ere ikastaro laburrak izango dira, 16 eta 28 ordu bitarteko iraupeneoak, eta arratsaldez eskainiko dira Arrasateko campusean.

# Europako Hackathon Tech-ik handiena

JUNCTION, EUROPAKO HACKATHON TECH-IK HANDIENA, MALAGARA IRISTI ZEN URRIAREN 20, 21 ETA 22AN LEINN GRADUAREN ESKUTIK



Reconocidas marcas del sector se unen a la iniciativa.

**Enpresagintza Fakultatea** | Junction, Europako Hackathon Tech-ik handiena, Malagara iritsi zen urriaren 20, 21 eta 22an, Mondragon Unibertsitatearen eta TeamLabsen LEINN Graduaren (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) eskutik. Irabazleek Junction 2023rako txartela lortu zuten, Helsinkin azaroaren 10, 11 eta 12an egin zen hackathon honen mundu mailako ediziorako, eta 20.000 euro baino gehiago jaso zituzten sarrietan.

Europako Hackathon Tech handienaren Malagako edizioan ehun bat lagunek parte hartu zuten, eta Andaluziako Teknologia Parkean (PTA) egingo zen, ostiral arratsaldeko 17:00tatik igandeko, hilaren 22ko, 14:00tara.

Hackathon honetan parte hartzen dutenek tech enpresek planteatuko benetako erronketarako soluzio berritzaileak sortu behar izan zituzten. Junction Malagaren babesleak Oracle, Qua Consultores eta Rocketlink dira; eta Fundación Telefónica 42 Málaga, TeamLabs, Impact Hub, Coca-Cola, Examfy, Medac eta Universidad de Málaga-LINK by UMAren laguntza du.

Ekitaldiaren koordinazioa Malagako LEINN Graduko lehen belaunaldiko bost gaztek egin dute: José Rojas, Iván Marmolejo, Santiago Castellanos, Pablo Oliver eta German Zamora.

## LEINN gradua Malagan

Mondragon Unibertsitatea eta TeamLabs Malagara iritsi izana Malagako Udalarekin duela bi urte sinatutako lankidetzako protokoloaren barruan kokatu behar da, Promalagaren bidez, hiria nazioartean erreferentziako berrikuntza eta ekintzailetzako hiri-ekosistema gisa bultzatzeko, bai eta enplegua sortzeko ere, enpresa-ekimen berritzaile berriak sortuz.

2022ko irailean, LEINN Graduko (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) lehen ikasturtea hasi zen Malagan, eta, aldi berean, Mondragon Unibertsitateak eta TeamLabsek Malagako 3.100 gazteri baino gehiagori eragin diete.



## Argitalpen onena CILCA 2023 nazioarteko kongresuan

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO EKONOMIA ZIRKULARRA ETA INDUSTRIA JASANGARRITASUNeko TALDEKO IKERTZAILEEK ARGITALPEN ONENAREN SARIA JASO DUTE LATINOAMERIKAKO BIZI-ZIKLOAREN ANALISIARI BURUZKO NAZIOARTEKO X. KONFERENTZIAN.



Aitor Picatoste eta Joan Manuel Fernandez sariarekin.

**Goi Eskola Politeknikoa** | Aitor Picatoste dokto-regaiak eta Joan Manuel Fernández eta Dani Justel ikertzaileek egindako ikerketa lanari ahozko aurkezpen onenaren saria eman diote Txilen uztailearen 24tik 28ra antolatutako Latinoamerikako Bizi Zikloaren Analisiari buruzko X. Nazioarteko Konferentzian (CILCA 2023).

Goi Eskola Politeknikoko Ekonomia Zirkularra eta Industria Jasangarritasuna taldeko hiru ikertzaileek, besteak beste, ibilgailu elektrikoen baterien bizitza baliagarria luzatu nahi duen proiektu baten barruan egin dute ikerketa lan hau.

Lanaren izenburua honako hau da: “Diseinu zirkularrean eta ibilgailu elektrikoen baterien bizi-zikloaren kudeaketarako gida: zirkulartasunaren irizpide eta adierazleak”, eta ingeniari, diseinatzaile eta diseinatzaileei baterian bizitza ziklo osoan zehar (produktuaren diseinu eta ekoizpenetik bizi zikloaren bukaera eta berziklapenerarte) hauen jasangarritasuna modu holistikoa interpretatzen laguntzeko helburuarekin garatu zen.

Latinoamerikako Bizi Zikloa Aztertze X. Nazioarteko Konferentzian (CILCA 2023) 130 lan aurkeztu ziren eta hauen artean Mondragon Unibertsitatearena izan zen aurkezpen onenaren saria eraman zuena.

**130 lan aurkeztu ziren eta Mondragon Unibertsitatearena izan zen aurkezpen onenaren saria jaso zuena.**

Foroak beraien erakundeetan produktuen bizi-zikloa hobetzeko lan-metodologia berriak sartu nahi dituzten unibertsitate, ikerketa-zentro, gobernu kanpoko erakunde, gobernu eta industria-enpresetako ordezkariak bildu zituen.

### Un equipo investigador multidisciplinar

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Ekonomia Zirkularra eta Industria Jasangarritasuna taldea Euskadi, Espainia eta Europako industria, enpresa erakunde eta erakunde publiko ezberdinekin elkarlanean ari den ikerketa talde bat da.

Ikerketa talde hau honako arlo hauetako adituek osatzen dute: diseinu industrial eta produktuaren garapena, industria-antolamenduko ingeniari, ingurumen ingeniari eta enpresa kudeaketa, eta proiektuen zuzendaritza.

Diziplina anitzeko profil horiei esker, industria proiektuen berrikuntza ziklo osoa barne har dezakete: produktuen eta teknologien kontzeptualizazioetik, esperimentaziora eta garapenera, hauek eskala handian hedatzeraino, negozio eredu teknologiko berriak eta balio industrialeko kateen garapena ere barne hartuz.

## STEMotiv proiektuaren laugarren ediziorako izen-ematea zabalik

LEHEN HEZKUNTZAKO ETAPA IZANGO DU ARDATZ EDIZIO BERRI HONEK. PROIEKTUAREN HELBURUA LHKO IKASLEEN STEM IKASGAIEKIKO INTERESA ETA MOTIBAZIOA ULERTZEA ETA HORRETAN ERAGITEA DA.



STEMotivi proiektuaren hirugarren edizioa da aurtengoa.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** | Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak abian jarri du STEMotiv proiektuaren laugarren edizioa. Proiektu honen helburua DBHko ikasleen STEM ikasgaiekiko interesa eta motibazioa ulertzea eta horretan eragitea da. Edizio berri honen xedetariko bat da, gainera, eragin horretan sakontzea eta Gipuzkoako ikastetxeen parte-hartzea handitzea. Horretarako, antolatzaile taldeak izen-emate epea ireki egin du Gipuzkoako ikastetxe guztiek aukera izan dezaten proiektuan parte hartzeko. Izan ere, orain arte bezala, ezinbestekoa da Gipuzkoako sare ezberdinetako ikastetxeen esku-hartzea STEM ikasgaitako motibazioa pizteko.

Orain arte egindako bidean, Gipuzkoako bederatzi ikastetxetan gauzatu dira proiektuak, eta DBHko 2.000 ikaslelik gora hartu dute parte egitasmoan. Abiatu berri den laugarren edizio honetan, hasitako biderei jarraitzea eta Lehen Hezkuntzako etapara zabaltzea da asmoa; izan ere, ikasleen motibazioan eragiteko adin baxuagoetara jotzea garrantzitsua dela uste du ikertzaile taldeak. Gainera, antolatzaileek uste dute STEM proiektuen bizipenek eragin positiboa izan dezaketela ikasleen STEM diziplinen motibazioan.

### Egitasmo saritua

STEMotiv proiektuak bigarren saria jaso zuen, 2022an, hezkuntza zientifiko-teknologikoko jardunbiderik onenak saritzeko helburuarekin Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak antolatzen duen lehiaketan. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bultzatutako proiektuan, Ikaslan Gipuzkoa eta Vicomtech erakundeek hartu zuten parte.

## Hamabi kooperatibatako ordezkariak kooperatibismoari buruzko aditu tituluaren

IKASTAROAREN HELBURUA DA KOOPERATIBEN PROIEKTU SOZIO-ENPRESARIALA GARATZEKO EZAGUTZA ETA TRESNAK ESKAINTZEA BAZKIDEEI. ORAINGO EDIZIOAN, 12 KOOPERATIBETATIK ETORRITAKO 19 LAGUNEK HARTUKO DUTE PARTE.



Eskoriatzako campusean egiten dituzte aurrez aurreko saioak.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** | Pasa den urriaren 6an eman zioten hasiera Kooperatibagintzan aditu tituluaren 16. edizioari. Oraingoan, 12 kooperatibetatik etorritako 19 lagunek hartuko dute parte. Saio presentzialak ostiraletan izaten dira, Eskoriatzako campusean.

16. edizio honetan, honako kooperatibetatik etorritako bazkidek hartuko dute parte: Auzolagun, Copreci, Fagor Assembly, Fagor Ederlan, Fagor Automation, Fagor Elektronika, Fagor Industrial, Maier, RPK, UHS. Ulma CySeta Ulma Packaging.

### Kooperatibismoa biziberritzen

Kooperatibagintzan aditu tituluak lortu nahi du kooperatiben proiektu sozio-enpresariala indartzea, betiere, dimentsio kooperatibo edo sozialaren garapenean begirada jarritz. Horretarako, ikasturtean, errealitate kooperatiboa ulertu eta aztertzeke, ezagutza teoriko-praktiko sendoa jasoko dute ikasleek.

Aditu titulu honetan, parte-hartzaileek jasoko dituzte erremintak kooperatiben proiektu sozio-enpresarialaren garapenerako baliagarriak izango direnak. Gainera, elkarlana eta bizipenak trukatu, beste kooperatibetako esperientziak ezagutzeko eta horien gaineko hausnarketa egiteko aukera izango dute. Oso metodologia praktikoa du ikastaroak; ikasturtea bukatzen da proiektu praktikoen aurkezpenarekin.

### Erreferentziazko ikastaroa

Kooperatibisten eta kudeaketa organoetako kideen formazioan erreferente bilakatu den ikastaro hau antolatuta dago Mondragon Unibertsitateko LAN-KI Kooperatibismoaren Ikertegia eta Mondragon Taldeko Otolara formazio zentroaren artean. Urte hauetan guztietan, 40 kooperatiba desberdinetatik etorritako 300 ordezkari baino gehiagok hartu du parte Kooperatibagintzan aditu tituluaren.

## Ebakuntza-gelako plangintzaren kudeaketa

TEKNOLOGIA BIOMEDIKOAK MASTERREKO IKASLEEK ARRASATEKO OSPITALEA BISITATU DUTE, MASTERREAN LANDUTAKO IRAKASGAIK OSPITALE SEKTOREAREN ERREALITERA HURBILDU AHAL IZATEKO.



Masterreko ikasleak ospitalera egindako bisitetako batean.

**Goi Eskola Politeknikoa** | Mondragon Unibertsitateko Teknologia Biomedikoak Unibertsitate Masterreko ikasleek Arrasateko Ospitalea (Debagoienako ESI) bisitatu zuten. Bisita "Plangintza eta entrenamendu kirurgikoa" irakasgaiaren barruan kokatu zen, eta ospitalean aplikatzen diren instalazioak eta barne-prozesuak bertatik bertara ezagutzeko aukera eman zien. Bisitan landu zirengai nagusiak hauek izan ziren:

Los principales temas que se trataron en la visita fueron:

-Pazienteen kudeaketa (kontsultatik ebakuntzara arteko prozesua) Pazienteen kudeaketa

-Eskualdeko ospitale eta kobaliabideak larrialdiko ebakuntzeta-rako

-Ebakuntza-gelak: ekipoak eta tresnak, behar diren langileen profila, etab.

-Garbiketa eta desinfekzio-protokoloak: gunegarbiak eta zikinak, material zikinaren ibilbidea, ospitaleko materialaren biltegia, etab.

Bisitak ospitalea bere osotasunean hartu zuen, eta ikasleak ebakuntza-gelara, anestesia osteko errekupe-ratio-unitatera, material medikoen

biltegiara eta erditze-gelara sartzeko aukera izan zuten. rrasateko Ospitaleko taldeak jaso zituen Mondragon Unibertsitateko ikasleak, eta atsegin handiz era guztietako azalpenak eman zizkien, gune horietan guztietan sartzeko aukera emanez.

### Ekintza eta bisita ugari urtean zehar

Teknologia Biomedikoak Unibertsitate Masterraren prestakuntza programak osasun-zentroetara eta sektorearekin lotutako enpresetara hainbat bisita aurreikusten ditu ikasturtean zehar. Jarduera horiei esker, ikasgeletan ikasten dena praktikara nola eramaten den ikus dezakete ikasleek, eta, jakina, beraien karreraren profesionalaspektorearen barruan gehien interesatzen zaien esparrura bidera dezakete.

Masterrak hainbat egunetako Learning Journeys esperientziak jasotzen ditu. Bertan, ikasleak Bartzelonara edo Madrilera joaten dira eta egun batzuetan osasun-sektoreko erreferentziazko zentroak bisitatzen dituzte.

Teknologia Biomedikoetako Unibertsitate Masterra Arrasateko campusean ematen da, eta esparru biomedikoan ematen diren ingeniari-tzaren aplikazioetan sakontzen du.



# Ekintzailtza eta berrikuntza New Yorken

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ENPRESAGINTZA FAKULTATEAK LANKIDETZA INDARTU DU NEW YORKEKO HAINBAT ERAKUNDEREKin, HIRIAN EKINTZAILTZA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEKO



Enpresagintza Fakultatearen eta hainbat eragileren ordezkariak New Yorken.

**Enpresagintza Fakultatea** | Urriaren hasieran, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak,

Lander Beloki Mendizabal, Enpresagintza Fakultateko dekanoa, eta Aitor Lizartza Martin, MTA ekintzailtza arloko eta Mondragon Team nazioarteko sareko koordinatzaileak ordezkariak, New Yorkera bisita bat egin zuen lankidetzak-akordioak sendotzeko eta ekintzailtza-aren eta berrikuntza-aren arloko proiektuak aztertzeko: Bisitaren ildo nagusia guzti hau eredu kooperatiboan oinarritutako gizartea sustatu eta lurralde inaktuaren ikuspegia sendotzea izan zen. Bisitaren emaitza nagusietako bat Mondragonen Unibertsitateak

The City University of New Yorkekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren ofizialtasuna izan zen, bi erakundearen artean ekintzailtza eta ikasle trukea sustatzeko asmoz.

Horrela, baliabideak eta laguntza akademikoa partekatuko dira CUNYrekin, eta bi unibertsitateek nazioarteko ekintzailtza-programa bat garatzen laguntzeko konpromisoa hartuko dute.

## Brooklyn Navy Yarden elkarlanerako aukerak

Bisita honek New Yorken ekintzailtza-proiektuetan parte hartzeko aukera berriak ere zabaldu zituen. Unibertsitateko lankidetzaz gain, lehen urratsak eman ziren Brooklyn Navy Yarden aukerak aztertzeko, berrikuntza eta inkubazio proiektu baten testuinguruan ekintzailtza sustatzeko sustapen publikoko ekimen bat dena.

Brooklyn Navy Yard hiri-fabrikazio eta berrikuntzako zentro bat da, eta 500 enpresa baino gehiago hartzen ditu. XIX. mendeko ondare bat izanik, Brooklyn Navy Yarde funtzio papera bete du Estatu Batuetako historian, ontziola gisa hasi eta parke dinamiko industrialak bihurtu arte.

## Nazio Batuetan bilera

Bisita aprobetxatuz, Nazio Batuetako funtzionarioak MONDRAGONeko ordezkariekin bildu ziren egin beharreko hurrengo urratsak eztabaidatzeko. Idazkari nagusiak lan elkartuko kooperatiben hedapenari buruz egin berri duen txostenaren aurrerapena aipatu zen, 2030 Agenda bizkortzeko estrategian MONDRAGONen adibidea nabarmenduz.

## Martiko 2023 Talentua

BASQUE CULINARY CENTERREKO IKASLE OHIAK IRABAZI DU CHEF GAZTEEN TALENTUA ETA SORMENA AITORTZEN DITUEN LEHIAKETA GASTRONOMIKO HAU.

### Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea

| Toni Serrano Benavent Deniako (Alacant) Quique Dacosta jatetxeko sukaldariak irabazi du *Talentos Martiko 2023* lehiaketa. 28 urteko Serrano Basque Culinary Centerreko ikasle ohia da, eta Gastronomía Zientzien Fakultateko sutegietan sartu zen berriro, "Kaputxinoa eta amuarrain ketuaren txigortua" proposamena garatzeko. Bere platerak, eguneroko plateretan inspiratuta, ogi txigortuaren gosaria, arrain ketua edo kafea adibidez, zaporea, usaina eta testura batzea lortu zuen, eta lehen saria eskuratu zuen. Gainera, Serranok bigarren proposamen batekin zuen: "Ahate, foie eta perretxiko kaneloiak". Sukaldariaren arabera, bere etxean kaneloiak beti izan dira aprobetxamendu plater bat eta, bere sustraien omenez, "luxuzko mokadu" bihurtu ditu "Martiko produktuei esker".

### Talentu gaztearen bila

"Talentos Martiko" Estatuko sukaldari gazteen talentua, pasioa eta sormena bilatzen eta saritzen dituen lehiaketa gastronomikoa da. Bertan, parte-hartzaileek Martiko produktuetan oinarritutako 2 sukaldaritzak-proposamen egin behar dituzte. Edizio honetarako, Martiko arrain ketuarekin egindako aperitibo bat (izokina, atuna, bakailaoa edo amuarraina) edo osagai protagonista foie gras freskoa edo Martiko ahate magret duen plater nagusi bat egiteko aukera zegoen. Lehiaketako epaimahaia herrialdeko gastronomian erreferente diren sei profesionalak osatu zuten, eta Toni Serranok Mondragon Unibertsitateko Fakultatean egindako proposamenaren alde egin zuen. Lehiaketaren irabazleak, "Martiko 2023 Talentua" izendatua izateaz gain, 3.000 euroko txeketa eta 3.900 euroko balioa duen Basque Culinary Centerren espezializazio-ikastaroa jaso zituen.



Toni Serranok irabazi du saria.

## Sebastian Pincheira. Gastro Talentua

BASQUE CULINARY CENTERREKO IKASLE OHIAK PRODUKTUAREN TRATAMENDURIK ONENAREN SARIA JASO DU



Sebastián Pincheira bere jatetxean.

**Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea** | Sebastian Pincheira jabe duen Kai Sushi Bar jatetxeak "Produktuaren tratamendurik onena" jaso du Gastro Talentua Sariaren seigarren edizioan. Lehiaketa hau Diario Vasco egunkariak antolatua dago, eta 40 urtez azpiko talentua aitortzen du hainbat modalitatetan. Gainera, lehiaketa honen epaimahaia bertako sukaldari ospetsuek eta Basque Culinary Center bezalako erakundeetako profesionalak osatzen dute. Lehiaketa ebaluatzeko irizpideak, besteak beste, baloratu beharreko establezimendu-etara egindako bisitetan edo jatetxea-rekiko iritzi publikoan oinarritzen dira.

### Ibilbide luze bat

Sebastian Pincheira 17 urte zituela hasi zen sukaldaritzaren sektorean lanean, Txilen. Bertan, sukaldaritzaren ikasketak egin zituen. Txiletik Australiarara joan zen Sidney eta Melbourneko hainbat jatetxe japoniarretan lan egitera sei urtez, eta sukaldaritzaren japoniarra berea

zela konbentziturik, Japoniarra joan zen iparraldeko jatetxe tradizional batean lan egitera. Hortik, Donostian lurreratu zen Basque Culinary Centerren Jatetxeen Kudeaketako Masterra egiteko, eta, ondoren, Kabuki eta Koyshunka jatetxe japoniarretan osatu zuen bere prestakuntza, Estrella Michelinekin. Bidaia hau Gipuzkoako hiriburura itzultzean amaitzen da, bere proiektua diseinatzeko, Kai Sushi Bar, itsasoaren eta lurraren arteko lotura perfektua irudikatzen duen jatetxea. Bertan, tokiko osagaiak milaka urteko japoniar teknikekin uztartzen dira, zapora konbentzionaletatik haratago doan esperientzia gastronomiko bat sortuz. Gaur egun, Gastro Talentuaren aitortza eskertu nahi du Pincheirak, eta epe laburrera bere helburuak "zoriontsu izaten jarraitzea eta taldea egoera onean egon dadin lanean jarraitzea, jatetxea beteta egotea eta jendeak eskaintzen dugun esperientziak gozatzeko jarraitzea" direla nabarmentzen du.

## Tiketak birsaltzeko plataforma berria

ASIER BENGEOA TORRE ETA NEREA ASTORKIZA URIBARRI DIRA PROIEKTU HONETAN PARTE HARTZEN DUTEN LEINNER-AK.

**Enpresagintza Fakultatea** | Mondragon Unibertsitateko LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduoko ekintzaileek aisialdirako sarrerak birsaltzeko plataforma bat garatu dute, Rebel Tickets izenekoa. Ekimen hau ekintzaile horien Gradu Amaierako Lanaren parte da, eta orain aplikazio mugikorren garapen-fasean daude.

REBEL TICKETS startup bizkaitarra da proposamen berritzaile hau garatzen gazte-talde bat full-time jaso duen erakundea, eta bertan garatu da Z belaunaldiak Z belaunaldiarentzat sortutako irtenbidea.

Ekintzaile horiek aukera bat ikusi zuten Instagrameko istorioen bidez gaueko aisialdirako, batez ere diskoteketako sarrerak saltzen zirela ikustean. Horrela jaio zen Rebel Tickets. Proiektu soila izaten hasizena errealitate bihurtu da, eta gazteek gaueko aisialdirako sarrerak erosi eta saldu ahal izango dituzte Bilbon, Bartzelonan eta Madrilan.

Aplikazioa eroso eta sarbide errazekoa izateko diseinatu da. Interesdunek jakinarazpenak jasoko

dituzte eta egiten diren transakzio guztiak modu seguruan egingo dira, iruzurrak saihestuz eta esperientzia gardena, fidagarria eta segurua bermatuz. Gainera, txat bat jarriko da, eroslea eta saltzailea zuzenean komunikatzeko eta zalantzak argitzeko.

### Startuparen sortzaileen hitzak

Asier Bengoa Torre eta Nerea Astorkiza Uribarri honela mintzatu dira proiektuari buruz: "Pozarren iragartzen dugu gure app-a eskuragarri izango dugula. Asko aurreratu dugu eta hobetzeko motibaturik gaude. Gure helburua komunitateari publiko zabalago batengana iristen laguntzea da, sarrerak bigarren bizitza

bat izan dezaten eta ekitaldiak maite dituztenek ezer gal ez dezaten ahalbidetuz. Hedapen batean gaude, Bartzelona eta Madril bezalako hirietara iristen. Saltzaileen eta sarreraren eroslearen arteko lotura funtsezkoa da aisialdiaren sektorean. Birsalmentaren inguruko eztabaida izan arren, uste dugu ondo egingo dugula, kezka eta iruzurra ezabatuz, esperientzia gardena eta segurua eskainiz".

**Bilbon, Bartzelonan eta Madrilan erosi eta saldu ahal izango dira gaueko aisialdirako sarrerak.**



Rebel, ticketing app berriaren irudia.



## Umeen ipuin kontalari

UMEEI IPUINAK KONTATZEA HELBURU DUEN MURMURIKAN PROIEKTUA EGONKORTU EGIN DA HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAN.



Murmurikan proiektuak antolatutako jardunaldi bat

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** | Lehen Hezkuntzako Graduko ikasleak diren Janire Bassecourt, Laida Vazquez eta Irati BaronakjarrizutenmartxanMurmurikan proiektua 2022-2023 ikasturtean, Leticia Garcíaren sustapenarekin. Ikasle hauen ekimen gogoz sortu zen gazteengan literaturaren sustapena modu dibertigarrian bideratzeko proiektua, literaturaren bitartez gizartearen eragiteko helburuarekin. Euskaraldia izan zen ekimenaren abiapuntua, Dorleta Kortazar ipuin kontalariak Eskoriatzako Fakultateak eskainitako hitzaldi batekin. Horren ondoren profesional ezberdinen laguntzarekin batera literaturan murgiltzeko ikastaro bat martxan jarri zen. Ikasitakoa praktikara eramateko helburuarekin, Luis Ezeiza eskolako eta Jose Arana guneko umeak fakultatera gonbidatuak izan ziren. Prozesu hau bukatzerakoan egindako ebaluazioaren emaitzak oso positiboak izan ziren, eta ikasturteari bukaera emateko Eskoriatzako umei zuzenduta "Altxorraren bila" jolasa antolatu zen herrian zehar, eta ondoren txoko

ezberdinetan banatu ziran haurrak, literaturaren sustapenerako joku eta dinamika ezberdinak burutuz. Horrez gain, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ipuin saio berezi bat egin zen Eskoriatzako liburutegian.

### Hazten doan proiektua

Hasiera batean 3 ikaslek osatzen zuten taldea 21 pertsonak osatzen dute gaur egun, ikasle ezberdinez gain unibertsitateko irakasle eta langileak ere batu baitira bertara. Gainera, 2023-2024 ikasturte hau proiektuaren egonkortzerako ikasturtea izango da. Iaz egindako lanak Diario Vasco egunkaria oihartzuna izan ondoren Goyeneche Fundazioa harremanetan jarri zen taldearekin, eta fundazioarekin elkarlanean irakurketa erraza landu eta formakuntza jasotzen jarraitzea izango da aurtengo ikasturteko helburuetako bat. Horrez gain, ekimena Eskoriatzatik atera eta Aretxabaleta, Arrasate edo Bergarako umei luzatzea izango da.

## Alumni

## NAIHA, saridun softwarea

NAIHA, UBIKARE EUSKAL ENPRESAK GARATUTAKO SOFTWARE SOZIOSANITARIOAK BRONTZEZKO LAUS SARIA JASO DU, DISEINU GRAFIKOKO SARI NAZIONAL NABARMENENA



Diseinu Estrategikoko Unibertsitate Masterreko ikasle ohiek Brontzezko LAUS saria jaso dute.

**Goi Eskola Politeknikoa** | NAIHA proiektuan Maitane García, Nerea Dorronsoro eta Marta Villar Goi Eskola Politeknikoko Diseinu Estrategikoko Unibertsitate Masterreko ikasle ohiek parte hartu dute. Guztiak diseinu estrategikoan trebatu dira Mondragon Unibertsitatean eta gaur egun Ubikare enpresan lan egiten dute. Produktuaren diseinuari eta erabiltzailearen esperientziari balio handia ematen dion enpresa da Ubikare, eta bertan, Nereak erabiltzaileen eta bezeroen beharrei irtenbidea ematen, erabiltzaile-esperientzia kontzeptualizatzen eta interfazeen diseinuak hobetzen dihardu. Bestalde, Maitane Ubikareko produktu saileko ardura-duna da eta NAIHA Mondragon Unibertsitateko Diseinu taldearekin garatzen ari den bere doktorego tesiaren barruan azterketa kasu bezala hasi zela dio. Azkenik, saritutako NAIHA proiektuan parte hartu izana garrantzi handiko mugarrria dela dio Martak, bai enpresarentzat, bai bere ibilbide profesionalentzat.

**Zergatik jaso du NAHIAK LAUS saria?** NAHIAK Digital eta Erabiltzaile Esperientziaren kategorian jaso du brontzezko saria. NAIHA aplikazioak laguntza baliotsua ematen die osasun-zerbitzuak edo zerbitzu soziosanitarioak kontratatzen dituzten pertsonen eta hauen senideei. Horrela, senide eta zaintzaileei aukera ematen zaie adinekoen, mendekoen edo kronikoen zaintzan kontrol eta jarraipen handiagoa izateko, eta edozein lekutatik eskuratu ahal izango dituzte osasun eta zaintza zerbitzuak. Gaur egun, NAIHA hainbat maila sanitario eta asistentzialetan txertatzen da, hala nola ospitaleetan, eguneko zentroetan, ambulatorioetan, etxeetan eta egoitzetan, adinekoen bizitzako etapa guztietan zaintza eta arreta hobetzeko helburuarekin.

**Errekonozimendu honek etorkizunera begira ateak irekitzen dizkizuetela uste duzue?** Gure produktua LAUS sarietan aitortua izateak enpresarentzat oso esanguratsua da, NAIHAK diseinu estandar eta irizpide gorenak betetzen dituela erakusten baitu.

## Atsedendaldi aktiboak; sedentarismoaren aurkako tresna eraginkorrak

OSASUNAREN MUNDUKO ERAKUNDEAK (OME), KIROL MEDIKUNTZAKO ESKOLA AMERIKARRAK ETA PORTAERA SEDENTARIOAREN INGURUKO IKERKETA SAREAK SEDENTARISMOA AZKEN 30 URTEETAKO POPULAZIO HELDUAREN GAITZ EZBERDINEN HAZKUNDEAREN ERANTZULE NAGUSITZAT JOTZEN DUTE.



Ikasleak Arrasateko campusean badminton kirola praktikatzen.

**Kirola** | Azken urteetan, obesitatea, diabetesa, hipertentsioa, artrosia, bizkarraldeko minak, antsietatea, depresioa eta ezgaitasun funtzionalak bezalako gaitzetan antzeman dituzte sedentarismo eta jarduera fisiko ezaren eragin zuzenak eta ezinbestekoa iruditzen zaigu bi kontzeptu horiek ongi bereiztea.

Sedentarismoaren inguruan hitz egiten dugunean, lo ez gaudenean eserita eta gorputzeko zonalderen bat bermatuta burutzen ditugun jardueri egiten diegu erreferentzia. Horiek, energia gastu txikia suposatzen dute egunaren zati handi batean eta unibertsitateko komunitatean asko ematen den egoera dela esan daiteke.

Bestalde, jarduera fisikorik eza, zenbait erakundek gomendaturiko gutxieneko jarduera fisiko mailalara ez iristea litzateke. Gogoratu, helduen kasuan aktiboa izateko gutxieneko maila hauek bete behar direla: astean intentsitate ertaineko jarduera fisikoa gutxienez 150 minutuz (azkar ibili, bizikleta, dantza ...) edo intentsitate altuko jarduera gutxienez 75 minutuz (areto bizikleta, igeriketa, talde kirolak ...). OMEren arabera, munduko populazioaren %60ak ez ditu gutxieneko maila hauek betetzen eta Estatu espainiarraren kasuan, %36ak (emakumeetan gehiago izanik - %41,9 - gizonezkoetan baino - %33,5)

### Erantzun ezberdinak

Honen aurrean, *active breaks* edo atsedendaldi aktiboek eskaintzen dizkiguten onurak gero eta nabariagoak dira, gutxieneko jarduera fisiko mailalara iristeko baliagarriak izateaz gain, gure jardun sedentarioak eten eta mugimenduari konpentsatzeko aukera eskaintzen dizkigutelako. Kirol Zerbitzutik gure unibertsitate komunitatearen osasuna zaintzea helburu dugun heinean, atsedendaldi aktibo hauek burutzeko aukera eta baliabide ezberdinak eskaintzen jarraituko dugu ikasle eta langileen artean. Horretarako, campus ezberdinetan kirol edo jarduera ezberdinak praktikatzeko guneak jarriko dira (badmintona, mahai tenisa, diana, jarduera berriak, ...) eta eguerdietako tartearak aprobetxatuz, batez ere langileei zuzenduriko jarduerak eskainiko dira (Yoga, korrika taldeak eta mugikortasuna, indarra eta malgutasuna lantzen diren MU Fit saioak adibidez)

Azkenik, gogoratu Kirol Zerbitzutik zure jarduera fisiko ohiturak aldatu edo egokitzen laguntzeko gaudela gure aholkularitza zerbitzuaren bidez.

## Pertsona onak komunitate egokiak sortzen

MONDRAGON TEAM ACADEMYREN 15GARREN URTEURRENA OSPATU ZUTEN EHUNDAKA PERTSONEK ESPAZIO BERRIAN



LEINN egoitza berriaren inaugurazio ekitaldia Madrilan.

**Enpresagintza Fakultatea** | Urriaren 5ean, LEINNren egoitza berriaren inaugurazioa egin zen TEAMLABS/ Madrilan, Madrilgo erdigunean dagoen eraikin ikonikobaten, Alhajasen Etxearen barnealdean. Gainera, gertakizun hau Mondragon Team Academy - MTA World-en 15. urteurrena ospatzeko baliagarria izan zen. Horretarako, mahai-inguru, aurkezpen inspiratzaile, sormen tailer eta zuzeneko musika emanaldiez hornitutako eguna antolatu zen.

### Bisita oso bereziak

Ekitaldiaren berezitasun nabariena kanpotik etorritako pertsona guztien

presentzia izan zen,

Madrilera gerturatuz komunitatearekin bat egiteko. Beste behin agerian geratu da pertsona onak komunitate onak egiten dituztela, eta ehunka egun berezi honetan lagunek espazio berria arakatu eta elkarrekin ospatu zuten.

Eskerrik asko Mondragon Team Academy-ko labs guztien Leinner eta Coachei eta haien inguruko ekosistema guztiari: Eskerrik asko enpresei, inbertsore, lagun, familiar eta leku hau etorkizunari aurre egiteko leku bihurtzen duen jende guzti horri, elkarrekin modu geldiezinean hazten jarraitzeko gune bat.

## Arizmendiarrietaren

TXOKOA

Jose Maria Arizmendiarrietaren ondarea, filosofia eta baloreak. Gogoeta liburuxka.

EUS

ES

**“Kooperatibistek benetako borrokalaria izan behar dute. Ogia irabazteko modu bat baino gehiago da gizarte-bokazioa”.**

(Cooperación aldizkaria 9. zenbakia / 1961eko Maiatza)

**“Los cooperativistas tienen que ser unos auténticos luchadores. Es una vocación social más que una simple forma de ganar el pan”.**

(Revista Cooperación nº 9/Mayo 1961)



## Ate irekiak (Aurrez aurrekoa)

### INGENIARITZA

INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAKO INGENIARITZA - ARRASATEKO CAMPUSA  
Azaroak 25, 11:00etan

INDUSTRIA ELEKTRONIKAKO INGENIARITZA - ARRASATEKO CAMPUSA  
Azaroak 25, 11:00etan

ENERGIAREN INGENIARITZA - GALARRETAKO EKO CAMPUSA (ORONA IDEO) -  
Abenduak 2, 11:00etan

INDUSTRIA DISEINU ETA PRODUKTU GARAPENEN INGENIARITZA - ARRASATEKO CAMPUSA  
Abenduak 2, 11:00etan

INDUSTRIA PROZESUETAKO EKOTEKNOLOGIETAKO INGENIARITZA (GREEN MANUFACTURING) GALARRETAKO EKO CAMPUSA (ORONA IDEO)  
Abenduak 2, 11:00etan

INDUSTRIARI APLIKATUTAKO INGENIARITZA FISIKOA - BILBAO AS FABRIK CAMPUSA  
Abenduak 2, 10:00etan eta 11:30etan

INGENIARITZA BIOMEDIKOA - ARRASATEKO CAMPUSA -  
Abenduak 2, 11:00etan

INGENIARITZA INFORMATIKOA - ARRASATEKO CAMPUSA -  
Abenduak 2, 11:00etan

INGENIARITZA MEKANIKOA - ARRASATEKO CAMPUSA -  
Azaroak 25, 11:00etan

INGENIARITZA MEKANIKOA - GOIERRIKO CAMPUSA (ORDIZIA) -  
Abenduak 2, 11:00etan

INGENIARITZA MEKATRONIKOA - ARRASATEKO CAMPUSA -  
Abenduak 2, 11:00etan

INGENIARITZA MEKATRONIKOA - BILBAO AS FABRIK CAMPUSA -  
Abenduak 2, 11:00etan

### ENPRESA KUDEAKETA

BUSINESS DATA ANALYTICS - BDATA - BILBAO AS FABRIK CAMPUSA  
Azaroak 11, 11:00etan

BUSINESS DATA ANALYTICS - BDATA - BILBAO AS FABRIK CAMPUSA -  
Abenduak 16, 11:00etan

ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA - MYGADE - BILBAO AS FABRIK CAMPUSA -  
Azaroak 09, 18:00etan

ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA - MYGADE - BILBAO AS FABRIK CAMPUSA -  
Abenduak 16, 11:00etan

ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA - MYGADE - BIDASOAKO CAMPUSA (IRUN) -  
Azaroak 9 - 18:00etan

ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA - MYGADE - BIDASOAKO CAMPUSA (IRUN) -  
Abenduak 16 - 11:00etan

ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA - MYGADE - OÑATIKO CAMPUSA -  
Azaroak 9 - 18:00etan

ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA - MYGADE - OÑATIKO CAMPUSA -  
Abenduak 16 - 11:00etan

### EKINTZAILETZA

LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA - LEINN - BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIA CAMPUSA -  
Azaroak 9, 17:00etan - Aurrez aurrekoa

LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA - LEINN - BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIA CAMPUSA -  
Abenduak 14, 17:00etan - Aurrez aurrekoa

LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA - LEINN - BIDASOAKO CAMPUSA (IRUN)  
Azaroak 9, 17:30etan - Aurrez aurrekoa

LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA - LEINN - BIDASOAKO CAMPUSA (IRUN)  
Abenduak 7, 17:30etan

LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA - LEINN - OÑATIKO CAMPUSA -  
Azaroak 9, 17:30etan

LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA - LEINN - OÑATIKO CAMPUSA -  
Abenduak 14, 17:30etan

### HEZKUNTZA

HAUR HEZKUNTZA - ESKORIATZAKO CAMPUSA -  
Azaroak 25, 11:00etan

LEHEN HEZKUNTZA - ESKORIATZAKO CAMPUSA -  
Azaroak 25, 11:00etan  
LEHEN HEZKUNTZA (BERRIKUNTZA DIGITALA) - BILBAO AS FABRIK CAMPUSA  
Azaroak 25, 11:00etan

### KOMUNIKAZIOA

IKUS-ENTZUNEZO KOMUNIKAZIOA - ARETXABALETAKO CAMPUSA -  
Azaroak 25, 11:00etan

### HUMANITATEAK

HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK - HDG - BILBAO AS FABRIK CAMPUSA -  
Azaroak 25, 11:00etan

### GASTRONOMIA

GASTRONOMIA ETA SUKALDARITZA ARTEAK - DONOSTIAKO CAMPUSA -  
Abenduak 2, 10:30etan

## Cursos expertos

### Goi Eskola Politeknikoa

DIPLOMA DE EXPERTO EN GESTIÓN DE PROYECTOS /Español - Presencial  
Bilbao / 12 ECTS  
26/02/2024 - 20/12/2024

CURSO EN GESTIÓN DE PROYECTOS. AVANZADO /Español - Presencial  
Hernani / 24 HORAS  
04/12/2023 - 18/12/2023

MÁSTER EXECUTIVE EN LOGÍSTICA INTEGRAL Y COMPRAS /Español - Presencial  
Bilbao / 60 ECTS

MÁSTER PROFESIONAL EN DIRECCIÓN DE PRODUCCIÓN (XXXII EDICIÓN) /Español - Presencial  
Arrasate-Mondragón / 60 HORAS  
05/03/2024 - 18/02/2025

DIPLOMA DE EXPERTO EN LOGÍSTICA INTEGRAL /Español - Presencial  
Bilbao / 22 ECTS  
24/11/2023 - 18/10/2024

CURSO DE ESPECIALIZACIÓN EN GESTIÓN DE MANTENIMIENTO INDUSTRIAL  
Español - Presencial  
Arrasate-Mondragón / 150 HORAS  
06/03/2024 - 11/12/2024

CURSO EN ACEROS: CONCEPTOS GENERALES Y TRATAMIENTOS TÉRMICOS (PRESENCIAL Y STREAMING) Español - Presencial y Online  
Arrasate-Mondragón / 16 HORAS  
13/11/2023 - 16/11/2023

DIPLOMA DE EXPERTO ONLINE EN DATA SCIENCE, DESDE LA INDUSTRIA, HASTA LA SILVER ECONOMY Español - Online  
16 HORAS  
19/01/2024 - 19/07/2024

CURSO ONLINE EN CIBERSEGURIDAD CORPORATIVA GRC (GOBIERNO, RIESGOS Y CUMPLIMIENTO) Español - Online  
175 HORAS  
06/11/2023 - 19/04/2024

CURSO ONLINE EN EJECUTIVO DE CIBERSEGURIDAD CORPORATIVA GRC Español - Online  
60 HORAS  
22/01/2024 - 08/03/2024

CURSO ONLINE EN CIBERSEGURIDAD: MECANISMOS DE PROTECCIÓN Y DEFENSA Español - Online  
50 HORAS  
29/01/2024 - 22/03/2024

## Jardunaldiak & ekintzak

### Azaroak

**Azaroak 23.**  
Eskoriatzako campusa.  
Eskoriatzako herritarrentzako ate irekiak Dorleta eraikina ikusteko.

### Abendua

**Abenduak 1.**  
Eskoriatzako campusa.  
Jardunaldia: Euskara eta kulturartekotasuna hezkuntza komunitatean II. Praktika onak eta ekarpen berriak.

GRADOS  
www.mondragon.edu/eu/ikasketak/graduak

MÁSTERES UNIVERSITARIOS  
www.mondragon.edu/eu/ikasketak/unibertsitate-masterrak

FORMACION PARA PROFESIONALES  
www.mondragon.edu/eu/ikasketak/unibertsitate-masterrak

OTROS

# Ibili munduan 0 komisio ordainduta\*.



**EZ du komisiorik** Estatu osoko 10.000tik gora kutxazainetan\*.

**EZ du komisiorik** LABORAL Kutxaren aldetik atzerriko kutxazainetan\*\*.

**EZ du komisiorik** dibisa aldatzeagatik.

\*Zure probintzian dirua ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu; zure probintziaz kanpo, berriz, entitate hauetako kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide. \*\*LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 18 eta 29 urte bitartekoa (biak barne), eta Bizum aktibatuta eduki behar duzu entitatearekin.



**LABORAL**  
kutxa